

# Laburu aita il da

Laburu aita, ospe aundikoa, entzutetsua bai benetan. Jaiotzaz bilbotarra, bizitzan Jesulaguna, Erroma'n il onen 5'gnean il da. Baiña bere ospea, izen ederraren ospea ezin il.

Erroma'n zan barriz, «Iñaki deunaren bizitzako gizarte alkar-ongintzazko idaztia amaitzera joanda. Larogeta bost urtegaz, euskotar «Lombardi aita» batek lez bearrean jarraitzea gura eban, ez egoan lekaidetxe baten bastertuta egotera makurtzeko gertu.

Ogeitamar urte luze zear ibilli ibilli da Erroma'tik ona, emendik Argentina'ra, andik barriz Europa'ra, ta nora ez? Erroma'n, urtero, iru illabeteko ikastaldiak emoten ebazan; gurean berbaldi ta gogo-jardun mamintsuak egin, eta Buenos Aires'en, Ikastetxe-nagusian, sikolojizko ikaskaiak irakatsi. Urteak zear bide-keta ta zeregin berberok egiten ibilli zan.

Bere bide-zorroetan, oindiño ez dirala utsitu, berbaldietako oar, diska-eremintz eta kasetak agertzen dira. Danok dakigu, izlari entzutetsu onek itzlarikera berezi ta eraginkor bat sortu ebal. Orregaitik ludi guztirako argitarazle dan batek bere lanketak argitaratzen eutsozan, Laburu jaunak berak bere abots eder eta zoliz indartuak.

Laburu Aita, 1887'gnek Garagarrillaren 4'gnean Bilbao'n jaiotzen zan, eta 1906'gnean Jesu'ren Lagundian sartu. Sendagaikintza-farmaci ikasten lau urte egiña zan. Gero, beste urte bi biologi ikastaroan; bizijakintzan ziardun bere gazte aroan.

Laburu jaunaren bizibidean ibilketak eta irakaskintzak aurkituko doguz nagusi. Itxas-zabala ogetamar bider gutxienez igaro eban, beti itxas-ontzietan, egazkiñez ibilteko bildur-edo zan, naiz naskagarri egiten. Alan eta be, bere azkenengo ibillaldia «DC-9» baten egin eban, baita atsegin-amesgarri iruditu be. Lenago sarri esaten eutsoen ibillaldi areik egazkiñez egiteko, azkenengo onetan, iñork ezer esan gabe, bere uste-oneko lemazain dan Fernando Lastra'gaz joan gura izan eban Erroma'ra, ta bere zortzi zorro idaztiz bete-beteakaz eldu zan ara.

Bere lenengo lekaidetza-eginbearrak Euskalerrian bete ebazan, berak ekarri al izan eban Lagundira Arrupe gaztea, orain bertako Nagusi doguna, ta orrenbeste al izan ebalako beti izan dauz poztasun eta atsegin andiak.

Laburu aita izan dogu benetako erlijio-izlaria. Garizumako berbaldiak berak egingo ebazala jakiten zanean, eleizak ezinbestean beteten ziran. Emen Bilbao'n eta an Madril'en; batez be San Ginés txadonera, inguruko jakintsu geienak joiatzen bere itza entzuteran, oneik ziran ba beti Jainkoz, goi-arnasez eta goi-argiz indartuak. Aldi areitako izlari askotxo «Frai Gerundio»ren antzera ibilli ebiltzan, eta gure Laburu Aitak erakutsi eutsen zein bidetik jokatu, txepelkeriak alde batera lagata.

Eta irurogei urtetik gorako nor ez da gogoratzen, sakon-sakon aztertu ondoren, Laburu Aitak epaitu ta erabagi zeatzak emon ebazala Ezkioga'ko argerketak ez ziralan egiazkoak esanaz? Errepublikan aldian, pelota-leku eta enparantzetan, gizataldez bete-beterik, sermoi ta berbaldi itzelak egiten ebazan. «Zezenen sikolojia»ri buruz be bai iñoz.

Ta, bizitza lanpetu orri egokionez «oskiak soiñean ebazala», orain esaten dan lez, il da, lanean gogor iñarduala. Egun batzuk aurrerago gaixo aldi bat izan eban, eta alan eta guztiz be, beste joan etorri bat edo geiago egin gura ebazan Argentina'ra, naita zailla zala jakin ango gauzak ez doazalako ain ondo.

Joan zan Bagillean, Loiola'n gaixotu zanean, eta bere ondoeza txartuten zala ikusirik, Eleizakoak eta Azken-igorizak emon eutsoezan. Ta gudari zar onek, bere Lagundikoei berbalditxo bat egin eutsen, batetik ez egoala ain txarto, ez beintzat ilteko zorian, besterik Jesu'ren Lagundian beti izan zala pozez eta alaitasunez beteta, esan eutsen. Ez ziran izan oneik bere azkenengo berbak, itzaldiak gertatzen jarraitu eban oraindik, eta Erroma'ra eldu zan bere azkenengo idaztia osotzera, ta an il da esan dogunez.

An il da Kristo'ren gudari kementsua ta euskotar zintzoa. G. B. Bere alboan, beste euskotar bat izan dau zaindari, Izagirre Aizarna'tar Simon Aita josulaguna. Gerotxoago Arrupe Aita be bertaratu zan. Gregoriana'ko erretore-ordezko dan Goenaga Aitak illeta itzaldia emon eban.

Lizardi gure olerkari aundiakin esan dagiogun: «Agur, Egun Aundirarte».

# Iñor ez erail

Urtero, ta urte barruan sarri, munduko izparringi guztiak, euren lenengo orrietan, Vietnam'go guda zitala aipatu izan dabe. 1972'gna geratu ei-da leialki ta zintzoro menia egiteko alegindun dan urtea lez. Ipar-amerikatarrak, batez be Lendakaria aukeratzekoan, auteskunde aldian, alperriko guda au euren izen-ona galduteko bakarrik dala ulertu dabe ondo.

Barrero izendatua izan baiño len, Nixon berberak esan eban, Laterri-Alkartuak bein eta betiko itxiko eba Vietnam, andik urten egingo eba; eta iñoren alde izan ez diran errialde batzuetako gudariak, taldetxo baten, begiratu ta aginduko ebela guda-geratze edo meni-aldi orretan. Joan dan urte orretan bertan, erritarren pentsaerea aldatzeko asmoan, Laterri Alkartua'ren erbesteko politika jokoak oinkada egokiak izan ebazan. Sartaldekoen artean biotzikara andia egin eban Nixon'ek jakiñerazo ebanean Txina'ra joan-etorri bat egingo eba. Ez tabaida itzela sortu zan ibillaldi orretaz, onurakorra ta egokia izango ete-zan. Baiña azkencan, Nixon jaunak, bere emazte ta lagun taldeagaz joan-etorri ori egin eban.

1972'gngo Otsailleko 17'gnean, urten eta lenengo geldialdia Kaliporni'an izan zan. Gero, Lendakariaren egazkiña Hawai'n eta Guam'en jatxi, ta 20'gnean, astelenez, «Boeing 707» a, Pekin'go egazki-zelaiari lurreratu zan. Abegi-batzordeak, Lenengo ministru dan Chu-En-Lai bera eban buruzagi.

Otsailleko 21'gnetik 26'gnerarte, Nixon lendakaria ta bere amairu laguneko taldea, Pekin'en geratu ziran. Emen, Mao ta beste txinatar buruzagiekin izan ebezen jarduketak. Bitartean, «Uri-debekatua» ta Orma Nagusia ikertu, ta irribarre ta berba laztan eta laban ugari ebezan ainbeste arrera ta alkar-ikusteetara joan ziran. 26'gnean, munduko uri politena dala uste dan Nagh Chown'era ikustaldi bat egitera joan ziran, eta urrengo egunean, azoka ta saltoki-lantegitsua dan Shanghai'en geratu, ta ibillaldiaren zeregin eta asmoak beterik, bere aberrira, USA'ra itzuli zan Nixon, amabost orduko etorkeran geldione bat bakarra egiñik Alaska'n.

Zalantzarik bage, Nixon eta Mao'ren arteko jarduketetan, gairik zailenaterikoa Vietnam'go burrukea geratu ta bein-betiko amaitzea izango zan. Lendakariak Txina'ra egin eban joan-etorri ori, gizonak alkartzeko asmoan izango zan benetan, baita bere auteskunde aldian, barrero lendakari izateko laguntzarako be. Ain zuzen, auteskunde oneitan, bidezko danez, amerikarren ondo-aurkitzearen ardurea, 1972'gn urtean, eragin andikoa izan da. Gero, azterketa bereziak Nixon izango zala barrero lendakari adierazten eban. Aitormen eta argibide gogorrez, Vietnam'go gudari buruz, jardun eban Mac Govern'ek. Baiña Nixon'ek, azken orduko ekin-tza aregaz erantzun eutsun: USA ta Ipar-Vietnam'en artean bake-jarduketak, burrukea bat-batean amaitzeko bidean zirala.

Kissinger'ek, Nixon'en ordezkariak, trebetasun jakintsuz lan egiten eban Paris'en eta Saigon'en bertan. Mundu guztia, burruka luzea laster, orduan bertan, amaituko zalakoan, itxaropenez bete zan. Baiña Ego-Vietnam'go lendakari dan Van Thieu'k iñoan: «Bere erriak deduz egindakoa ez ba'zan, ez eba bakerik onartuko». Tamalez, atsekabez, gudea aurrera. Paris'eko jarduketetan algiñak egiten dirala esan arren, ez da amaitu. Eriotzak, ondamenak eta negarrak orain arte lez; irureun mille gudari baiño geiago, an dabiltz burruka gogorrean. Joan dan Lotazillaren 18'gnean, Nixon lendakariak bonbaketa izugarriak, Ipur-Vietnam'en aurka, jarraitzeko agindu eban. Amaika egun iraun dabe, eta edestian izan diran andienak izan ei-dira. Europar jaurlaritzakoak eta Errialde-Alkartasun'eko batzarkide geienak aurka jarri dira gogor, bonbaketa anker eta bildurgarri orrei buruz.

Augatik, eta nork daki biotzez be, urtea amaitu baiño len, bonbaketak geldierazteko agindua emon eban, joan dan Lotazillaren 30'gnean, eta Kissinger eta Le Duc Tho orrean arteko jarduketak barrero asiko dirala, Urtarril onen 8'gnetik asita, Paris'en.

Mundu guztian ainbeste gura dan bakea, egingo ete-da laster?... Olan itxaroten dogu. Aita Santuak be, urtearen azkeneko berbaldian, alan itxaroten dau, otoizka Jaunari, orrenbeste emon daiskigula. Beragaz otoi egin dagigun danok, Jainkoaren eskuetan dagozala late-rien etorkizuna ta gizonen biotzak gogoratuta.

# Lurrikaren sorburua

*Lurrikara gogor batean milloika gizaki il ei-leitekez. Orain arte ez dau gizadiak orrelango zoritxar ondamentirik ezagutu izan. Baiña...*

*Nun dira lurrikaren iturburuak? Zergaitik jazoten dira ludiko alde batzuetan, eta beste batzuetan inoiz ez? Ainbeste ondamen dagian ezin siñisteko indar orren izatea, zelan datza? Mundu guztiko jeologu-pisikalariak, kezkatu dagiez itaunketa orreik; Managua'ko onek ikaratu dauz.*

*Belgatar jeologu dan Tazieff jaunak, dardarazko berbaz, au idatzi dau: «Mundua zear nabillenetik gertakizun oneik aztertu ta arakutzen, burura sartu yat, ez dakiela gizonak, berarizko eurak be, zenbat zoritxar ikaragarritzko ondapen jazo leitekezan: eun milla, bosteun milla, milloi bat ildako, bear ba'da, minutu batzuen barruan». Nork siñestu orrelango gertaera negargarririk, oraingo guda zitelen atomozko bonbaketatik at izan leitekenik? Baiña jeologuen agerbide agiriak diñoskue gizadiak orain arte, zorion-aldi utsez (siñistunak: Jaungoiko errukiz) ondamente izugarri orreitatik jagon al izan dabela.*

*Jelogu beronek argitu ta adierazten dau: «Arrautza baten antza daukon borobillean, lurbiaren azalean bizi gara. Borobil onen erdi-erdikoa gorringoa lez da; zuringoa, bero-beroa, lur-azal azpikoa, urturik dago ta milla ta bederatzireun aneurkin-kilometro lodiera. Oskolak ostera, gure oiñen azpiko onek, irurogeiren bat aneurkin bakarrik daukoz. Lur-azal au ez da lurreko zillerdiaren % bat baiño, beraz, arrautza oskola baiño oraindik meagoa da, bataz-beste.*

*Ain auskorra danez, su-goritsu urturik dan ore-pastakaren eragiñez oskol ori erraz apurtu leitekela ulertzen da. Ta, ore bero ori indar andiz dago azalera urteteko bultzaka. Lur-azal peko indar itzel onek nundik eta zelan dabiltzan, oraindin ez dakigu. Augaitik ezin igarri ezta aurrez ikusi noiz eta nun urtengo dauan eta ondamenti bildugarriak sortu.*

*Luzeera andi baten, ba-dakiguz nun eta nundik datoza; azkenengo irurogetamar urte oneitan, ainbeste sismologu azterketa egin dirala, geienetan nun izaten diran asmatzea itxiten daukue. Orretara, lurralde andi bi ezagutu legikez: Bakezko Itxaso andiaren, Zelanda-Barri'tik Txile'ra bitartekoa bata, ta Atlantiko ertzak jarraituz Erdiko itxaso aldean, Maroko'tik asi ta Erdiko Itxaso ori zear Asi'ko Sorkalde Erdiko ta Ego-sorkalde'raiño. Izaten dira baita, beste lur alde batzuetan be, esaterako Atlantiko erdian eta.*

*Lurrikaren sorburuak aztertu ta obeto jakiteko, ta beraz, aurrez igarri ta ondamen zoritxarreti jagoteko, zorionez, ba-dira orretarako lanean jakitun talde ta tresnatza ugaria mundu guztian. Oraindik urte asko ez dirala, Mosku'n izan eben Erriarteko Batzar Nagusia. Batzar orretan, jeofisiku egintzarako elektronik neurketariak ipiñi bear zirala erabagi zan.*

*Sobiet et Ipar-amerikar ikasiak, Lurbira'ren barrutiko eta bertan izaten diran arkaitz aldatzeen neurketa zeatzen agerpen bat egin eta landuten, alegiñetan diardue. Orain, jakitun orrein asmoa, ikusi ta ikastea ei-da batez bere, Lurbira'ren gaiñeko azal-estalkitik asi, azaletik asi, ta milla aneurkin barrenera zer dabillen igarteko. Orain arte, lur onen barrutik beruntz, amarren bat aneurkiñera baiño ezin izan da eldu izan gizona.*

*Azterketa ta ikaskintza batzuk agertu dabenez, ez ei da Lurbira'ren gorengo estalki au, lenago iruditzen zana langoa. Lurraren izangaiak, fisik zeintasunari begira, goiti-berako edo jauzkera oargarri bi daukazela argiratu al izan da. Bata, laureun aneurkiñen sakonean, ta bestea beeragoko seireunean, azalaren azpitik beera bata bestearen ondoren. Agerpen au guztiz garrantzizkoa ei da, ludiaren erraietako egiturea ulertzeko.*

*Lur gaiñean agertzen diran lur azalaren ezbarditasunak, barren-barrengo zuztardunak ei dira, gitiñenez berreun aneurkin beera doazenak. Gauza oneik ondo ezaguturik eta, aurrez rantzean askoz geigo jakingo diranakaz, itxaropentsu izan daikue, jakiña, beti Jaungoikoa lagun, gizasemeak igarri, tokiratu ta aurrez jakinerazo al izango dauzalako lurrikarak, ta euren ondamenti gaizto ta zoritxarretik zaindu ta jagongo garalako.*

# Montevideo'tik Deusto'ra

Siñestu ete leiteke? Bai ziur, egi-egiz! Argazkian agertzen dan aspaldiko gazte berberau, gaur be bizirik eta sendo, esango dogun lez, emen bizi dana, Montevideo uriaren irasle izan zanaren jatorrikoa dogu. Baiña, lenago, gogoratu daigun irakurle guztiok, Zabala'tar Bruno Maurizio, irasle ta asaba antsiñako aren bizi-kondairea:

1682'gn urtean Durango'n jaio zan, eta 1736'gñean Parana ibaian il. Gazterotik gudari bizi-bidea artu eban. Flandes, Gibraltar, Zaragoza ta Alcantara'ko gudaldietan ibilli ta nabarmendu zan. Gudaroste mariskala zala joan zan Buenos Aires'era, emen erri-buru eta kapitan nagusi izateko. Uraguai'ko itxas basterretan Esteban Moreau itxaslapurra menperatu al izan eban, an lurre-ratu zana. Orduan irasi eban Montevideo uria, uri barriaren erakun ta antolabide on eta betebete bat egiñaz. Paraguai'n sortu ziran matxinada, naspil eta iraulketa batzuk baketu ondoren, Txile'ko arduradun nagusia izateko aukeratu eban. Baiña agintaritzta ori artu baiño lenago, Paraguai'tik abiatuta, bidean joiazala, il zan.

Ori olan zala, ona emen gizon biozdun, entzutetsu eta omen aundiko aren belun-arteztetik jatorrikoa Deusto'n bizi dala. Orain iru edo lau urte, Enekuri'tik Artxanda'rantzako goietan ibiltzen nintzanean ezagutu neban. Orduan, bear ba'da, bere apaltasunagaitik ez eustan ezer esaten bere sendi ta jatorriaz. Gure arteko jardunketea, egunero gertaerak bakarrik izaten ziran. Oartzten neutsan bai, euskaldunai dagokien gauza danetzat bere sugar zoramen zaletasuna. Egun areitan Urtain egoan ukabilkari arteko gorrengo maillan, eta nire lagun onek, Weiland garaituko ebanaren uste osoa eukan, baita Europa'ko txapeldun be geratuko zala, alan jazo zanez. Geroago, Cooper ukabilkariak gogor egin eutsanean Urtain'i, onek garaituko ebala ta barriro txapelketea irabazi uste eban.

Adiskiderasunak eraginda, lotsak itxi eutsen beintzat, bere bizitzako jazokun berezi bat neuri agertzen. Esan eustanez, Babcock-Wilcox lantegiko ingeles tekniku batek, euskotar onen indar, giar, almen eta osasun be-teaz miresturik, boxcalari izateko aolkoa emon eutsala, ta orretarako Kaliporni'ra joan bear ebala, ta ingelesak berak, dirudun eta mutilzarra zanez, diru-eralgite guztiak leporatuko ebazala.

Aldi baten, ez neban ikusten lagun barri au, nire zeregiñakaitik ezin izaten neban ibilladirik ara egin. Baiña, egun batzuk dirala, kalean aurkitu neban, eta orain bai, esan eustan parra-parra bera zala Bruno Maurizio illezkorraren, Montevideo irasi ebanaren lerro-lerrozko jatorrikoa. Au entzundakoan, bat-batean sortu yatan bere agermenok gure AGUR asterokora ekarte, emen argitaratzeko. Ta, lagun onegaz alkar-izketea gertatu dot:

—Baiña egia ete-da zuk diñostazuna? Zelan egiztutzen daustazu? Nor zara zu?

—Ni, Zabala'tar Matxin Fernando naz, Santurtze'n jaio nintzan, Babcock-Wilcox lantegian lagille izan naz, ta orain 75 urtedun ta, beraz, zar-saritu. Lantegi orretan ingeles arek eskatu eustan boxcalari izateko. Ezetz

erantzun neutson, urko-laguna min-oiñazetan ikusteko aiñako biotz gogorrik ez neukala-ta.

—Baiña, diñostazunak ez dau Zabala'tar Bruno Maurizio zure antxiñako aitabisaba dala erakusten ez argiraten.

—Bidez zagoz. Orain arte esan dautzudana ez da gauza orretarako. Gura ba'dozu, orra-tiño, paper argibide egiazkoak erakutsiko



dautzudaz. Etxean daukodaz. Jazokun batek argiratu dautzu oraingoz egia dala diñostazudana: Zabala'tar Bruno Maurizio jaun-gandik datozen emakume guztiak ta bakoitxak, errenta bizi-saritzta bat eskuratzen dabe urtero Durango'ko Elaiza-nagusian, Orain 250 lauerleko, irudizko zerbaite baiño ez da, baiña orduan, Bizkai-ko Aldundi Goienak sortu ebanen, emakume baten elikatzerako ta bizitzeta aurrera eroateko lain izango zan. Nire etxean, alabeak eskuratzen dauz, gura dauanean, bateo agiria erakutsirik.

—Ori bai dala, zalantza barik, siñisgarri ta ezaugarri argia, ukatu eziña. Eta orain esan egidazu, arren, zure asaba antxiñakoren baten edesti edo gertalditxoren bat.

—Nire aitatarena esango dautzu: Begoña'n jaio ta ezkondu zan, ta ondoren Durango'ra erriratu zan. Pelotari entzutetsua, indartsua, bioztuna ta ausardi andikoa zan. «Itzela» deituten eutsen. Ikaratu zaitez, emerretzi seme, danak mutillak, eukazan ezkontza batetik, bein baiño ez zan ezkondu-ta. Danan gaiñetik, kristau, gizon-on, euskaldun zindoa zan, iñori iñoiz kalterik egin ez eutsana, ta beti arin zapalkeriak edo okerkeriak arteztuteko.

—Benetan gauza orreik oargarriak dira. Orreitan bai agertuten dala Zabala'tar Bruno Maurizio, Montevideo'ren iraslearen, zuen aitabisabaren indarra ta bizitasuna.

LETONA

# AMA LURRA

«1972»ngo Lotazillean amaitu dauz gizonak bere lenengo ikustaldi-billaketak illargian. Ona ekarri gaitun Bake-guraria, gizar-teko bizitza danetan disdiratu daitela». Esakun au Cernan eta Schmit'ek illargian itxi eben. Burdin-azal baten marraztuta dago Apolo egitarauen azkena. Beste egazkada barririk illargiruntz noiz izango dan igarri ta aurretik esatea ez da erreza, baiña, bear ba'da ez da antzik, edo obeto esateko, ziur esan daike ez dala antzik datorretan gizaldira arte. Orretarako beintzat ez dago elburu berezirik, 1961'ganean Kennedy zanak esan eban lez, urrengo amar urteak baiño len illargira eldu bear zala, izenpetu ebanean.

Ekintza au amaitzean, gai onetzaz jardun bear eben. Ez zan baiña giroa orretarako. Vietnam'en, iñoiz baiño gogorrago ta bildurgarriago ziran bonbaketak, eta ez zan gogorik onelako ekintzarik goratzeko, gizadiaren andinairik agertzeko. Orain, bakea egin edo izenpetu dan ezker, orain bai, gogoratu legikez orrelango gaiak eta ekintzak.

17 egazkada eginda gero, ezin obeto azkendu al izan zan Lotazillaren 6'gnetik 19'gnera bitartean Apolo'en egitaraua. Jakitebillaketa baten azkena izan dala batzuk uste izan arren, ez aitzu politikazko entzute ta zabal-bideen eragiñak izan zirala egazkada ospetsuok biribildu ebezanak. 1957'ganean, errusitar Sputnik'eri Eisenhower zanaren gobernuak erantzun eutsen Saturn ta Merkuri areik andituaz. Kennedy'ren erabagia be, Gagarin'en egazkadaren ondoren izan zan.

«New York Times»ek gogoratzen dauan lez, orduan asi ziran iparrerikarrak Krusche'ek esan eban au aintzat artzen: Fidel Castro'k Latin-amerika osoa azpiratuko ebal ta danagaz jabetu. Ango bildur eta asarrealdian, Kennedy'k dei egin eutsen illargiakin jabetu bear zirala, ta deadar oneik, errian eta Batzar nagusian, erantzun ona izan eben Gaur, orratiño, kanpoko zemaletatik baiño barruko txirotasun, endakeri ta beste etxeko arazoetatik arrisku andiagoa dabela euren Aberriak, ainbestek uste dabe an. Oraingo euren ardurak eta arazoak, barrukoak, lenengotasuna dabenak dira. Augaitik illargiekintzak, zerk eragin barik dirala, ezeztuta dagoz.

Alan-da-be, ziorik andiena ez da dirurik ez eukitea. Dirua ba-dago. Gogoratu, illar-

gira joan-etorri guztiak balio izan dabena, guztira 27 mille milloi dolar, Vietnam'go gudakoa baiño bost bidar gitxiago, edo Guda-zaintza edo Defensarako urtebeteko aurre-kontua bera baiño iru bider gitxiago izan dala. Baiña, zer aukeratuko dabe?

Amerikarren gaurko eretxiak, illargi ta izarbeletako ekintzatzaz, autarki bereziz edo asmo-erakuste argiz egin al izan dabe. XI Apolo'k ain ondo egin eban egazkadearen ostean, 1969'ngo Gararillaren 20'ganean, lenengo gizon bi, Armstrong eta Aldrin, illargi ganean ipiñi al izan ebezala, guztien pozaren pozez; illargira bederatzi egazkada, eta lenengo gizona Marte'ra bialtzea be Nasa'k asmatu ebazan, larogeitaka amar-urtekorako.

Gero, erriak ez ebazan ontzat artu asmo orreik. Onen agerkari da baita, zelan aldatu ziran egazlarienganako begiramen eta ondo-eritziak. Laterri-alkartuak, giza arrigarri, erdi-yainkoak bear izaten dauz aldizka. Baiña bestelako egikerak eta egazlarien izate narbenetik asita; onetariko batzuk filateli-sale-rosketak egin ebezela jakiteraiño; oncintzako eben on-iritxia errikoen artean galdu zan, eta olan, egazlarien arteko, taldeko gogoia ta kemena apurtu ziran. Asieran aukeratua izan zan taldetik 23 lagunek alde egin dabe.

Gaindu diran illargi-ibillaldiak, ordain-sari batzuk ekarri ei-dauz, baiña ez ainbestekorik. Askoren iritxiz, Bardeen, Brattain eta Shokley'k 1947'ngo Lotazillean asmatu eben irrati-batuegaz, transistoregaz bardintzen dabe. Sarri, jazoten dan lez, laterrietako aldunak, aurrerapen orreik erri txikien bizkarretan saiotuten dabez, eta gudarakoak izaten dira batez be.

Illargi-azterketa oneitzaz, New York'eko Ikastetxe Nagusian irakasle dan William Barrett filosofoak, labur baiña argi idatzi eban bere «Irudimen ekintzak XX gizaldian» liburuan: «Irrigarriak dira benetan, Lurbiratik urteteko asmatu dauskuezan jakiturizko lenengo aurrerapenak; gure barru-sakoneko zati onek, lurrakin berakin eginda gagozala, ezin dogula iñoiz bera ukatu edo beragandik iges egiterik ez dogula izango, erakusten dausku. Ederto esan be, diño erlijioak: «Gizadia, autsa zara ta lurreratuko zara».

# Gizonaren Arazoak

Irakurle guztiak ezagutzen dabe Zirarda Gotzain jauna, entzutez beintzat. Bizkaitarra, euskalduna, 1917'ganean Bakio'n jaioa, Amazortzi urtean abade beargin ospetsua izan ondoren, Gotzain izentatu eben, Bilbo'n bere erkideen artean iru urtean Gotzain ordeko izan zan, ta gero, 1971'ganean, Kordoba'ra eroan eben ango gotzain izateko.

Urte onen asieran, gaurko eleiz-gaietaz azalpen oargarriak egin ditu. Ona emen zer diñoan:

Arazoak ugari dira. Oraingo kultura, teknika ta ekonomiko azikera lastertasunak, siñismen sakonagoa eskatzen dausku. Gure erlijioa egiteetan agertu bear dogu, ez eleiz-kizun andietan bakarrik. Ondasun-banaketan zuzentasuna erlijioak erakutsi bear dau batez bere. Laterri eta naziño batzuetan sortu diran prolemak dirala-ta, Aita Santuak kardenalen batzarrean egiñiko itzaldian auxe esan dau: «Gizarte erakunde aldaketak eta zuzenbagerikeri egoerak zuzentzeko aurrerabideetan astiroegi ibilteak, zer ikusi andia dau sortzen diran gogo-burruka zitalakaz, eta oneik txarrra jo ezkerro, goikoz-beera indarrez ipinteko gogoia dakarre».

Augaitik, Eleizeak, bere berbea esan bear dau giza-arazoen aurrean Siñismena ez da arima barrenean gordeta doan zer bizi bat. Gure izatearen mamiñeragiño sartzen direan arazoai Jainkoaren erantzuna emoten dautse fedeak, gure bizitza osoa Jainkoagana zuzentzeko.

Zer ete da Kristiñau bizi izatea? Gure gauza guztietan Jainkoaren Berbeak eskatzen dabenez bizi izatea, ta Berba ori siñismenaren bitartez geureganatzen dogu. Orregaitik, lur onetako arazoak curak be, ez dagoz Eleizearen irakatsietatik at, naizta, ikuste baten, fede arazoetatik urrin dagozala begitandu.

«Eleizeak gaurko munduan, ondo argi erakusten dau ori. Izan be, sendi, jakintza, ekonomi, gizarte ta politika bizitzako goraberak, asko erabilli dauz. Guztiontzat dauka Eleizeak zer esana, olango prolemak gizonaren eskubiderik sakonenekaz eta arimen salbaziñoagaz zer ikusi andia dauken neurrian» (G. S. 76).

Askotariko izakereak (pluralismoak) alderdikieriz eta atasa-tankeraz, buruko-min andirik emoten ete dautsoen itauneri, olan erantzuten dau:

Ezbardintasun tankera orreik, eurenez, gauza onak dira. Bizitzaren ikur agergerriak

izan be; eskubide jatorrak gizarte bizitzan barruan. Askotarikoak izateak, orraitziño, erri tarrak bananduteko bide bat izan daitel gorrotoa sortu leike. Eta iñoiz, baten gogoa auxe dator: ea norbaitek orretan be partu ta irabazten dauan...

Baiña gai onetan, Jon XXIII'ak emandausku irakatsirik ederrena, au esatean: «Ez dabe talde txikiak euren buruari begira bakarrik bizi bear; beste aldeko gizonakaz izan daitkeen eguneroko artu-emonak, gizonaldetik aberatsagoak izateko asko lagunduko dautse-ta». Niretzako —diño Zirarda Gotzainak— gaurko Eleizearen asmakizunik ez arazorik andiena, batasuna ta alkartasuna ezbardinien artean jadetsitea da.

Eta Zirarda jaunak, etorkizuna itxaropidala ala mingostasun etsimenez begiratzen edo dau? Gai onetzaz olan adierazi edo mintzatu tzen da: Gure Eleizea ta kristiñauen barmatzatzea erreza dala diñoanak, usteontsu larraigokoa dau. Baiña, zorritxarrak aurrez igartzeko dabilzanak be, Jon XIII'ak salatu ebazte deituz: «zoritxarren igarleak». Egia esateko Eleizearen egoerea emen, mundu guztian be zail eta neketsua da, baiña itxaropenez gaitzeka dagona be bai.

Gure Eleizearen egoerea illuna izan arren gaur, aurrerantz begira, ainbat itxaropen argi agiri dira. Naizta gure arazoak be aztunak izan, Jaungoikoagan dogun itxaropenak dau bere indarririk iñoiz galtzen. Izan be, Jainkoa gure Aita dala siñisten dogu; zuzen gagoz geuk geure aldetik al doguna egiteko ezkerro, Jaungoikoak laster eta arduratsuz lagunduko dauskula; maite-maite gaitutau. Auxe da gure itxaropenaren oiñarri lokatuz eziña.

Gure sendietan be bizirik dagozan siñismen eta oitura onak eraginda, eurok orain arte lez, umetxuak Kristautasunean aziteko eleiza ta eskola izango dira. Eta beste askoren artean beste au be itxaropen ezaugarria dogu: ainbeste dirala gugana datozan arazo onen edo orren aurrean, Eleizeare eretxia zein dan jakitera; orreik, beti ta gaur guztien gaiñetik, Eleiza Amagaz gogo-biotzekoak izan gura dabe-ta.

Danon alegiñez, Eleizea gaurkoratu bear dogu, iñoiz ezeztu barik bere Kristo'ren arpegi; ezpabere, garbiago, disditsuago, begi koago egiñaz.

LETONA

# E u s k a l O p e r a k

Donostiar musikalaria ospetsua zan Jose Maria Usandizaga'ren *Operea* edo *eres-antzerkia*, «Mendi Mendiyan» Bilbo'ko Koral Abesbatzak antzeztuko dau, bertan, Épail onen 29 ta 31' gnetan. «Mendi Mendiyan», bizikaitarrentzat eta Koral Abesbatzarentzat euren begiko maitatua ta oneretxi osokoa da. Opera au, artzain-lirikoa izanik, abesbatz orrek aginduta donostiar musikagilleak egin eban, bilbotar Jose Power'ek abesbatzaren zuzendariak asmatu ta antolatutako bildumatik. Tresnamendua gertatu ebana, gure erritar antzez margolari Eloy Garai izan zan; ta azkenez, María del Carmen Béjar nafar abes-goren ospetsua ta beste batzuk izan ezik, bizkaitarrak izan ziran talde adierazle artakoak. Orregaitik eta euskal-liriko bitxi eder bat dalako, autaturiko egun orreitan antzezteko aukeratua izan da Bilbo'n «Mendi Mendiyan» eder au.

Euskal izkuntzea guztiz da egokia *eres-antzerkietarako*. Toleskor, gozogarri, etorri errez, itz, aozko ta lagundunak bear daben neurria daukeela; soiñu-eres edertasunez apaindutako otsak dira. Benatan da melodietarakoa gure euskera ederra. Olan sortu izan ziran antzerki-erti *eres-lan zoragarriak*. Erdi-mendean, Ipar aldeko Euskalerrí'an, Laburdi'n eta Zubero'an artzai doiñu antzerkiak, idazti-deunetiko gaiekin, asi-masiko ereziak egiten ebezan. Emen, gure artean, ez dogu orrelango jaialdien errezturik. Lenengo antzerkiak, jakínekoak, XVIII mendean asi edo agertu ziran.

Euskal kulturari bultza egiten onenatarikoa Peña Florida'ko Kondea izango zan. Onek irasi eban «Erriaren Adizkideen Lagundia», eta ele-bika, *eres-antzerki* «Ordi-maxiatua» (*El borracho burlado*) egin be. Azkozaz geroago, Donosti'n, egitalde bateko Santisteban'en «Puden» *operea* euskeraz antzeztua izan zan. Geroago, Gimon'en «Iparragirre», ta Zapirain'en «Txanton Piperrí» ta «Anboto».

Egia esateko, antzezkudeetan lenengo lanak zirala, ez eben izan ospe andirik, baiña bai gauza ederrik tartean. Bilbo'ko Koral Abesbatza'ren ardurapenak bear izan ziran euskal *opereak* indarra ta susperraldia artu egien. Ipar aldeko euskaldunak egindako «Maitena» be ez zan ain betea agertu. Baiña Koral Abesbatza'k bere alegiñez eta erti-lanaz osotu ta biribildu al izan eban ta ederto antzeztu zan.

«Maitena»ren garaipenak eta ondoren onak, euskaldun eresgille gazte batzuen artean zein-geiagoo ta leiaketea itxartu ebezan, eta euren ikastariak Prantzi'n eta Germani'n osoturik, gure melodi-eresi errikoak barren-barrenetik ikasten asi ziran. Ona emen eresgille onein izen entzuenatarikooak: Usandizaga'tar Jose Mari, Intxausti'tar Santos, Guridi'tar Josu, ta oraindikooagoo, Eskudero'tar Franzisko. «Mendi Mendiyan»en egillea Usandizaga da; «Lide ta Isidor»ena Intxausti; «Mirentxu»rena Guridi, ta «Zigor»ena Eskudero.

Esan dogun lez, «Mendi Mendiyan» laster, il onetako azkenengo egunetan antzeztua izango da. Zein da bere gaia?: Mendieta, griñak araiño igon arte euren baretasuna artegatua zoriontsu bizi ziran artzaiñen bizi-kondairea. Maitakeri alkar lei gogorrak, eriotz-erailketea dakar. Ikasgai goibel ori, arantako otso-eiza ta artz-jai alaien gertaerekin legunduten da. Usandiza'ren *eresiak* urduritsu, ausarti, kementsu ta sugar dirdizetan nabarmendu ta azaltzen dira.

«Lide ta Isidor», Intxausti'rena, ipuin polit bat da; antzokietako tresnamenduentzat egokia. Iru andereiño ezik, danak umetxoak dira diarduen antzezlariak; ain da lilluragarria erakusten dana. Dantzak be zoramenek beterikoak. Eresa erriko, errez-errez, melodi eztitsu gozoz kutsatua.

Eta Guridi'ren «Mirentxu», zelangoa? Maite olerkia da; *eresia* ta itzak bardindua eta barne-kideturik daukazanak. Errota batean, gure Erriaren alderdi eder gozatsu baten, Mirentxu'k, errotariaren alabeak Raimundo morroia maite dau, semetzat artu ebana errotariak. Baiña Raimundo'k, eskerbidez-edo, aren maitasunari erantzuten dautsola ba'dirudi be, izatez, Presen, auzoko neska bat maitatzen dau. Presen galanta ta eder mardula da; Mirentxu barriz, itun makaltxoa, ta bularretik jota dagona, Bein. udabarrian, eta bere ustez osasun ona ebalakoan, poz-pozik eta irribarez loreri begira egoala, otz-otoan maitaille biak aurkitzen ditu. Egi onek naigabe andia dakartso ta eriotzea aurreratu; azkenean Raimundo'ri parkatuz, neba-arreba arteko musu bat artuta, ilten da gozatsu. Ez dau azalduterik bear, *eres-doiñuaren* liraintasan, samurmin eta txairotasunaren ederra. Guridi goren maillako musikalaria zala danok dakigu.

Eskudero'ren «Zigor» *operea* orain iru bat urte, entzute andiz, Madril'en eta Bilbo'n antzeztu zan. Vikingar eta euskaldunen arteko burrukea; gudakuntza gogor eta itzelak adierazten daukuz. Azkenean euskaldunak garaille. Erez-doiñu bizkorra, kementsua, oraingoa. Ez alperrik, Eskudero, eresgille ospetsua ta gaurkotua izan.

# Erri Doiñu-Zalea

## Eresia gizonaren lenengo erasia

Laterri aurreratu ta ikasienak ardura andia izan ei-dabe eresi-doiñu errikoiak zaintzeko. Ori ikusten da Prantzia'n, Belgika'n, Suiza'n, Alemania'n baita Errusia'n eta abar. 1825'gn urtetik, guk euskaldunok, Iztueta'ren bildumea, Albeniz'ek be idatz-aldatuta, daukagu. Orrez gaiñera, lenago Euskalerrri osoan ezaguna zan Salaberri'rena, baita Bordes, Etxebarria ta Gimón'ena be. Baiña, batez be, joan dan gizaldiko azkenetatik eta oraingoaren asierati, Azkue'k, Donosti Aita'k, Sabin Arana'k, beste asko aitatzek, eresi sorta ederrak egin eta batu dauskuez.

Baiña esaten dan guztia ez da erri eresia izaten. Peter Benoit'ek idatzi eban: «Erriko eresiak, euren neurkada ta armoni ots-kidetasunen aldetik, erri bakoitzean bizi diran biztanleen etniko-abendiziti berezitasunai dagokiezenak izango dira».

Saint-Saens'ek iñoan: «Eresia, izkuntzea bera baiña enda baten gogamena geiago da». Euskal-eresiaren berezitasuna, edozein errirena lez, barru-barrenean billatu ta usmatu bear da. Euskal-Esnaile lagurnartea, erri-jakintzari dagokiozan gaietan, Aldundi Goienaren zuzentzaille izan zan, bai elerti idatz-lanetan, baita eresian be. Euskal-Esnaile orrek, Bonaparte erregegia-gandik artu eban bere ondorentza.

Gure abestiak aztertu ta arakatu ba'dagiguz, ikusten dogun lenengo ontasuna, gure izakerearen gozotasuna ta antz-iruditzea da. Ez doguz, ez, gure gogaetak eta barren-ikarak zalaparta baten agertzen. Gure gogo aurreralariaren ibillera astiduna, baiña irautia ikustatzen daben atzerritarrek, epeltasuna deritze. Batzuentzat illun agertzen dan gure ekinaldiaren iraunkor-lasaitasun au gure aran eta mendietako argi-nabar giroan dago: laiño-ariñez estaldurik dagozan gure alderdi-ederren atala da. Jakingarria da, ia gure eres-melodi guztiak, «andante» tarikoak dirala musikolari ospetsuenak esatea. Beste au be bai: gai alaiak abesten ba'dira be, gure abeslariak doiñu txikian, ia beti, abestuten dabezela. Onetan gergoritar abesti ta antxiñako grezitarren antz andia dauke.

Gure ortze odeitsu onek —Donosti aitak idazten eban— euri sarritsu orrek, gure mendien inguru ozkirriak estalduten dituezan laiño urdin ariñak, eta iñoiz gorrizka ta baltz, eguzkipeko argi gordin-eza orrek, gure alderdieri illunkera nabar bat damoetse, geure bizikera eta jokabideetan ezinbestean agertzen dana.

Beste berezitasun bat be nabarmendu bear da: berez datorkio gure folkloeari sentikortasunik ez aldatzea, ta olan bigunkeriak galtzen dauz ta bizkortasuna ta indarra artu. Ez dauko apainketarik, ez kuli-mulikarik, ezta dardarik be. Gure eresi abestiak, beti izkaka esatekoak dira. Gure baserritarrak labur, tolesge ta biotz zintzoz abesten dabe. Ezereza kromastimoa da eurentzat.

Eres errikoia, euren lan ospetsuak osotzeko izagaien altxor billatua da musikolari onenentzat. Ekarrri gogora, Grieg, Schubert, Saint-Saens, eta gureen artean, nor ez? Or doguz Usandizaga, Guridi, Azkue, Sorozabal... Oneik, ereskidetu ezeze, erabili be egin ebezan gure abesti ederrenak, adibidez Mendi-Mendiyan, Urlo, Mirentxu, Amaya ta... beste entzungarri ugari, benetako euskal eresi eder doiñu-lanak sortu, koral, ereskitza ta jogailluetarako aukeratuz. Nok ez dauz ezagutzen Donosti aitaren Euskal Erestrareak, edo Pagola ta Bizente Arregi'ren Euskal Doiñuketak. Ezin aztu ezta ere, lur zabalean omen andiz entzuriko euskal musikolari ezilkorrek diran Arriaga'tar Jon Krisostomo ta Isasi'tar Ander.

Oraingo belaunaldi jakintsuenak, asaben ibil-bidea gero ta obetoago jarraitzen dau. Leiaketa edo eres-batzaldien eragiñez, Udaletxe, Aurrezikitxa ta beste onenlango babeste ta laguntzaz, egintza indartsu barriak agertu ziran, eta agertzen dira. Guztiak aitatu eziñaz, ona emen batzuk: Garbisu, Bastida, Olaizola, Zubizarreta, Karmeldar Jose Domingo, Jose Luis pasiotarra. Oraintsu, beste pasiotar gaste bat be nabarmendu jaku: Barturen'dar Paskoal, orain urte bi-irutik euskaldun danok entzun al dogun «Euskal Meza»ren egille azkarra, organu jottzaille trebea, ta abesbatzen zuzendari zur ta adoretua.

Azkenez, Altube'tar Seber entzutetsua aitatu dagigun bereziki. Euskal gaitzaz eban bere jakintza gorengoari, ereslari nortasun eta gora andikoa izan zala gaiñeratzen jako. Euskalerrri'ko alderdi guztietan ezagutu ta agertu zan abesbatz ederra sortu eban. Or dira bere «Marijeses» benetan oroigarriak eta beste euskal eresi-lan berarizko ta ospetsuak. Ta, berakin batera, zelan ez gogoratu bere, Altube'ren ikasle izan ziran Olaeta aita-semeak? Oncin mitxeleta-dantza edo baletak ludi zabalean daben entzuerata ta ospea danok ezagutzen doguz.

LETONA



# EGURATS GARBIA

Orain aste bi ur, eta egurats loiak garbitzeko batezbe izan da Bilbo'n lenengo Batzar Nagusia. Lantegi Ministritzaren Zuzendari-ordea, Alfonso Enseñat de Villalonga'k aitormen eta azalpen oargarriak egin ditu. Bilbo'n laster izango dogula, aldi asko igaro baga, «teknika-arauzko egurats garbia» esan dau.

Berba oneik askorentzat ustekabe ta siñisgatxak izango dira. Zelan lortu miragarri ori? Zelan izan liteke Bilbo'ko eguratsa teknika-arauz garbi, aurreramena ukatu ta lantegi asko itxi barik?

Itaunketa oneri olan erantzuten dautse Ministritzaren Zuzendari-ordeak. «Esaten dan berarizko alatz miregarririk ez dago. Guztiok pentsaetako lana da. Guztion arazoa diñot. Bai bakoxtareana, norberaren berokin ta berebillekaz, bai lantegi-jabe ta lan-buruzagiena. Ze lan eskatu daikegu lantegiei garbitasuna, loikeriak aldentuteko, guk geuk, eskugain garala, neurri ezertxurik ez ba' dogu ipinten? Ezin alderditu lanik orretan. Ontzi baten goaz danok.

Alandabe, Bilbo'ko itxas-adar ezker aldean tokirik loienak dira, eguratsa dan aldetik. Sestao, Barakaldo ta beste onein lekuko biztanleak zelan siñestu legikee Lantegi Ministru jaunaren itzetan? Baiña siñisgatx gauza au berak argituten dau, pentsaerari buruz dagokionez, lantegi-jabeak erantzun-iardestzaille dirala esanaz. Eta euragaz izan dauezan jarduketatik ikusten da prest dagozala alegiñak egiteko. Jazoten dana da, batzuk euren lantegiko ondakiñak ezereztu edo gitxituteko erarik ez daukela ondiño. Abibidez, burdiña egiteko lantegietan garbitzaille tresnak ipintea guztiz garesti izaten da. Augaitik diru geiagoaz, garbitasun geiago lortuko dogu, astiro ta aldika ibilli bear. Lenengo, loikeri lodiena ezereztu bear dogu.

Ori esan dau Alfonso Enseñat jaunak.

Nik neurez galdetuko neuskio: Gipuzkoa ta Bizkaia'k ez dabe sortzen diru naikorik bertako ur eta egurats garbitzaille tresnak ekarteko?...

Baiña Lantegi Ministru Ordekoak esan euskunari jarraitu daiogun. Indarrrik kutsu-loi sortzailleenak aukeratu doguz. Oneitarikoak berrogetamairu dira, ta oneik garbitzean egurats loikeria % 80'an txikiagotuko da. Kutsu sortzaille lantegien aldakuntzak diru-eralgite andiak bear dauz. Nok eutsi oneiri? Langintza batzuk, eurak, baiña nekez. Beste batzuentzat egite ori eurak ezereztutea litzake. Beraz, lagundu egin bear yake.

Orretarako Giro Egurats Laguntza Legea dago. Lege onek diño: «Erri edo toki bateko lan eta ondasunen eustazpi langintzak diranean, diru-laguntza emon bear yake». Baiña ori Ondasun Ministrukuntzak mugatu bearko dau. Orrez gaiñera, legeak baldintza zail eta bereziak eskatzen dauz.

Ikusten dogunez, guzti ori korapillotsua ta nekegarria da, eta baiezko zeozeren bat lortu arte, urteak eta ez gitxi igaroko dira.

Geure uri ta erriko eguratsa ta ibar eta aranetako ibaiak albait ariñen garbitzeko, gure foru ta eusko-legeak bear doguz benetan. Zetarako ainbeste lantegi-gai, sortukizun eta irabaziak, ezin ba' dogu arnasea ondo artu, zeru ta alderdi ederrak ikusi, edo ur garbiak edan...? Orain, ostera, bilbotarrok beintzat eta Bilbo'n bizi gareanok keezko borobil-erdi pean bizi bear, noiz arte ez dakigula.

Enseñat Ministru-ordeak geu arindu gaitzean-edo, erri aurreratuenak zabarrerriak gitxi edo ezeztu bearrean oi dagozala gogoratzen dausku, baiña euren eskuetan be almena ta bidea izanik ori lortzeko. Zeregiñ onetan guztiok alegintzen gagoz. Legeak izan arren, ez siñestu legeak dana egingo dabenik. Astiari astia emon bear yako. 1972'ko lotazilla'ren 22'ganean legeak urten eban kalera. Bere azte, etorpide ta azaldaketa bear doguz. Bear diran erabideak Gobernuak artu dauz. Datorren urteko lenengo egunetan legezko gaiak amaiturik egongo dira.

Ori ta be, Enseñat jaunak adierazo dausku eguratsana baiño urarena bearrezkoagoa dala. Edateko urak 2050'gnerarte irauñ ledike. Eguratsaren sabaia, barriz, neurribako da. Gizadia ez da artegatu bear arazo onetan. Lurbirea ur garbi barik geratzen doa, ez baiña egurats barik.

LETONA

# Kristiñauak Errusi'an

Ba-dago Errusia'n eleiz-jerarki neurriduna, eskola nagusiko ikasail bigaz, iru abadegai-etxeak bosteun ikaslekin eta ogetamar gotzain euren lanbidean; gizon ta emakumeentzat komentu ta bakartade-etxeak, ta iru edo lau milla eleiza edegita eleizkizunak egin eta sakramentuak aukeraz artzeko.

Ez da baiña kristau-ikasbide eziketarik izaten eleizetan. Umeak artzen daben bateoa ez da agiriz naiko, origaitik gurasoak, batezbe amak, siñismena eutsi ta zaindu bear dabe etxean.

Odolezko jazarkunderik ez dago orain, baiña bai estukuntzak, Gobernu jainkogabeak abadegai-etxe ta eleizak edigita egotea itxi arren, ume ta gazteen erreljio eziera debekatzen dau gogorki. Ikastoletan, ostera, eziera, irakatsiak eta ikaskizunak eratsuz jainkogabe ta deungeak dira. Estukuntza onek lantegi ta ofiziñetan jarraitzen dau, eguneroko izparringi, irrati ta urrutikuskiñen maillukadak kontuan artu barik.

Onela bietarik, naitaez, gauza bata jaso bear: edo ateokeriak irabaziko dau ta gazteak zarren jainko-bizieratik aldenduko dira, edo kristautasuna izango da garaille azkenean.

Dana dala, gaztea ez da, noski, eleizan sartuko, eragozpenik ez aurkitzeko bere ogibide goraldian. Ona zegaitik Errusia'ko eleizetan ez diran ikusten zarrak eta andrak baiño, eta nozedonoz gazte batzuk, au edo origaitik, «ezer galdu eztaukienak». Baiña siñesmena, barruko fedea ezaupide txikietan agertzen da: neskatilleak gurtzarako itxita dagon eleiz aurrean, aitiaren egiten dau; ostatuko andra garbitzailleak txangolariari erlijio idaztia nun lortu daben itaunduten dautso. Eta kristau-jai andiak dirala-ta, eleiza jainkotiarrez beteetan, ikasten dan fedea, adierazoten dausku milloi etxe barruetan siñismena bizi ta zainduta dagola urte guztian.

Iru errusitar siñesdun talde nabarmendu ta ezagutu geinkez: Agiriz ta itxuraz eleizetatik eta eleiz-gizonetatik aldenduta dagozanak, ixillean orrein zaleak izanez; abadea euren etxera yoakie ta egiten dabez ixillezko bateoak, ezkontzak ta illetak. Gogoz, bertako eleiz-agintaritzat ontzat artzen dabe, marmar egin бага onen zuzenbideeri.

Beste batzuk abade ta gotzaiñekandik aldendu ta ganera onein aurka diardue, batezbe Gobernu deungearen aurrean dauken argalkerigaitik. Baiña jazarraldi onek ez dakar austurarik Eleizearen alkartasun batzarkideagaz. Bere legatasun ta eskubidea ontzat artu ta sakramentuak artzeko beragana doaz. Kristiñau oneik-onetariko bat da Solzhenitsyn Nobel saria irabazi ebana, abadeen koldarkeri ta bildurra, Kristo'ren Ebanjelio ta Eleizaren eskubide ta askatasuna predikatzeko, azterkatu ta murdurikatzen dabez. Zeregin onek jarraiketarik ekarten dautse, «Jaungoikoren esana gizonena baiño lenago egin bear da». Olan uste izaten dabe.

Au edo ori dala, abadeakaz asarretu, areriotzen diranak eta Eleiza ofizialaren batzarkideegandik aldendu, sekta txikietan batuten dira. Au jaso oi-da erlijio eziera gitxi edo ondo ikasi ta argitua ez dagonean, ziñauste, okerkuntza ta siñiskeriak sortzen dira. Errusia'n antxiñetik, eta gaur bidezago, giro egokiena dago, kristau ikasbidetik bakarturiko talde txikiak euren fedea asmatu dagien, Errusia laterri andi-andia da, ta abadeak gitxi, eta txarrago dana, txarto ezieraturik.

An dagozan targo-sekta batzuk, gogoratu edo zenbatu daiguzan laburki. Garrantzi andienekoa ta ofizialki ezagutu ta onartua «starovery» (ziñesdun zarrak deituten yake. Onetariakoak, batzuk abadebakoak (bezpovvtsi) izanaz, sakramentu bi bakarrik, bateoa ta ezkontzea, artzen ditue; ta abadedunak (povvtsi) besteak. Errusia guztian milloi bat «starovery» izango dira orain, irureun parroki eleiza-nagusikaz. Mosku'n bertan berrogetamar milla dira ta iru parroki ditue.

Gitxiago ta izilpean dagozanak, legez ez ezagutuak ta jazartu, zigorturik agertzen diranak, ona emen euren izenak: «jistli», «skopsy», «dujbors», «pryguny» ta «molokan» (moloko'k, eznea esan gura dau, garizuma aldian eznea bakarrik edaten dabelako).

Sarkaldetar sektak ba-dira be. Solzhenitsyn'en elebarri nobeletan, adibidez, «Juan Denisovich'en egun batean» baptistak, Jehoba'ren autorgilleak eta beste sarkaldeko erreljio-egikari batzuk ikusten doguz sarritan.

LETONA

# Euskerea Gizarteko Izkuntzea

*Iber-erdiugarte'ko erroma-aurreko izkuntzak, gure Euskerea ezik, ezereztu ziran; Itali'n be galdu zan Etruskoerea, aldiz geroago Kornikarra be itxundu. Orain, Igalanda'n, keltarren izkelgi batzuk il-zorian dagoz. Frantzi'ko Bretoa ta Oc izkuntzak, ozta-ozta zainduten dira, gizarteko izkuntza izan guraz, ta iñoiz lortuaz.*

*Eta gure Euskereatzaz zer esan? Euskaldunok bizkor, arduraz eta alegintsu jardun bear dogu; gure izkuntza ederraren izatea zema ta oztopo aundiz inguraturik dagoaka agiri da-ta.*

*Oartu daigun lenengoz, Frantzi'ko irakasle aurrengotariko batek, M. Meillet'ek diñoana: Europa'ko izkuntzen egoera guzur-antzekoa dala. Alde batetik, egazkin urrutizkin ta ikuskin, itxasontzi, berebil ta bultziz, urruntasuna laburtu dala, ta errien arteko artuemonak alkartuaz doazala, izkuntza ugaritasunak daukazan eragozpenak ikusirik, guztiontzako izkuntza bakarra aukeratzea onura ta irabazgarri andikoa izango dala uste izan eragin daukue.*

*Beste aldetik, erri guztietan, txikienetan be, bakotxaren izkuntzea eutsi ta zaintzeko zuzperraldi gogotsua ta indarketa sutua dirala ikusten dogu. Laterri txikiak, dagokien askatasuna, bide-bidezkoa, lortzen dabenean, euren izkuntzea gorde, berbiztu ta onerazteko arduretan oi dira. Ta, alegin au egokia ta zuzena dala ezin iñork ukatu.*

*Orregaitik, gaur, ainbeste izkuntzari abertzalek, eta erabatez gizarte zalek, berezko izkuntzen irautea ta erriarteko izkuntza laguntzalearen onartzea, ospatu ta goratzen ditue; adibidez, volapükist'en esaera eza-gunak diñoanez: «Menad bal püt bal, nen da motik»: Gizadi bat, izkuntza bat, amaren izkuntzeari kalterik egin barik.*

*Aipagarriak diran izkuntzen zerrendan garrantzitsu agertu bear Euskera izkutugarriak. Izan be, Karl Hannemann, Berlin'go «Euskara» aldizkariaren irasleak, 1889'gn urtean, idazlan bat ergitaratu eban izen buru onegaz: «Ekiñaldi bat Euskerearen alde, danentzako izkuntzea izan daiten».*

*Fermandar euskerazale onentzat, izkuntza barri bat asmatzeko jakintsuak diarduena alperrekoa da. Bizi ta il diran izkuntza guztien artean, baldintza ori beteko dabena Euskerea da. Berau ei da filosofizko erti lan nagusia; bere egituran, zugaitz batek lez adar eten-bako ugari alde guztietara bialdu ta sustraia barriak nunai sortzen dakiana agertzen ei-yaku. Orrez gaiñera, durundatsu doiñu-aldagarri ta erraz mintzatu ta aozkatzekoa ei-dogu, izki-lagundenez urri, ta lagunbakoz ugaritsua dalako. Biguna ta toleskorra danez, erretorika, filosofi ta olerkigintzarako egokia ei-da.*

*Fermandar jakitun orren eritiziz, mundu zabaleko izkuntzea izateko aiña egokitasun ba'daukaz be gure Euskereak, euskaldunok pozik izango giñakez Euskalerrri'an bizi diran guzti-guztien naita-naitezko izkuntzea izango ba'litz.*

*Emengo guztiak, Euskalerrri'an itz egiten dan antxiñako izkuntzearen alde jokatu bear leukee jatorki ta eurenaz. Zoritxarrez, idazlari batzuk ez ziran olangoak izan, eta orain be, naiñta Euskerearen aurka idatzi ta aurrez-aurre ezer egin ez arren, ba-dira gure artean Euskerearen ezerezte ta galtzea azpikeri maltzurrez gura ta egiten dabena. Eurak jakingo dabe zergaitik!*

*Kulturearen izenean bear ba'da. Baiña, ain zuzen be, euskalduneri euskeraz ez irakastea da kulturarako atzerabide ta oztopo andiena. Bear-bearrezkoa ta bidezkoa da euskaldun umeak euskeraz ikasi bear dabezala lenengo eskoletako ikas-gaiak. Erderaz ikasiko dabez gero gura edo bear izan ezker. Izker biko erriak ba-dira, eta aurrerenetarikoak. Izker bi ikasi ta erabiltea ez da euren kalterako; bai oster, adimen ori biziago, zorrotzago ta indartsuago gertatzeko.*

LETONA

# Goiberaldi - Etsipenak

*Edozeinek izan oi dauz goiberaldiak, nakarraldiak, bizitzako onik onenean be. Nikola Atxukarro'ren Zamudio'ko gaxotegian, Euskalerrri'ko laurogei berarizko osagille batu ziran. Gaurko arazo bizi-bizia dan goiberaldia aztertu zan.*

*Zelan jakin goberaldiaren sorburua nun dan...? Gupera ta biotz-gabetzetik asten da. Gero, izatearen eta etorkizunaren ikuste ituna dakar. Errudun ba'lira, damututa agertzen yakuz. Ezbaikokeria, usteonik eza barruko alderdi guztietatik. Aldia gelditu yakoela dirudi. Beraz, etorkizunerako gogoetak eta joandako egintzak atsipenez beterik iduritzen yakoz.*

*Eunetik 50 buru-erailketen bultzagaia goibera orretan ei dago. Buru-erailketea etsipenaren azken-mugea da-ta.*

*Sendi barruko arazoak, askatu-eziñak diranean, luzerako edo eten-eziñak diralako, goiberaldia sortzen dabe. Babateko biotz-izualdiak baiño txarrogoak izaten dira orretarako.*

*Ba-dira beste eragille batzuk be. Nork esan: Irabazpidearen gora egitetik goiberaldia sortu? Irabazpidea goratzeak, itxuraz, alaitu egin bear leuke. Baiña sarritan, ez da orrela jazoten. Irabazpideen gorakadeak goberaldia sortzen dabela, ikusia ta erakutsia dago. Asko, euren betiko bizibidean oituta ta egokituta izaten diranez, gorago igotean ikarutzen asten dira, erantzunkizun barri eta zaillagoen aurrean. Baita, lan-bide bat baiño geiago izateak, eta oneik alde aundikoak, naiz batetik bestera asko ibiltzeak be, goiberaldien sortzaille izan ledikez.*

*Ta, gogaldi ta kaskarraldi aldaketak goiberaldirik sortzen ete-dabe? Orreik onetan ez dabe ezer tartean. Gogoaren beste akats eta utsuneak baiño ez dira.*

*Eri-aldi au sendatzeko nai arindutzeko, oiñez ibillaldiak egitea ei-da onenatarikoa. Goiberaldi-depresiopean izan diranak, bi edo iru aneurkin-kilometru ibilli bear dabez egunero, ta al izan ezkerro, zugatz artean. Goiberaldiak ez dau inor zorutzen zaindu ezketiño. Zoroetxeetan baiño geiago dira andik igaro ez diran goiberaldiak jotakoak.*

*Emakumeak ala gizonak ete dira zorigaitz ori sarriago jasan dabenak? Emakumeak, zergaitik? Goiberaldia biotz-beren argaltasunetik datorrelako. Emakumeak geienez, etsipengarri ta minberatsuagoak izaten diralako. Osagilleen eritxiz, sikoloji eragille utsez ez litzake goiberaldirik sortuko; bioloji, bio-kimi izan-gaien egikerea bearrezkoa da orretarako. Ta, zeintzuk ete dira oneik? Zelango bioloji izan-gaiak eroaten gaitue goiberaldira? Ona geien entzuten diranak: adrenalina, guntzurrun gaiñeko gingilletan sortzen dana, baita noradrelania be, neurrian bearrezkoak, geiegi nai gitxian kaltegarri, baita beste odoleko gaiekin txarto naasturik, goiberaldia sortu daikee. «Sorotina»kin batera gure soiñean zabaltzen diranean kalte andia egiten dabe. Auxe, bereziki, aztertu ta adierazo dabe Zamudio'ko mai-biribillean.*

*Gaurko egunotan ezin geinke zeoro aldendu ezta ezeztu be goiberaldia gizartean. Keea, burdi, berebil, ta bultzien zarramarra, lurrun edentsua, ikatzgaiaren ugartze lenena, zarata, ta ariñiketa itogarriak gero ta gero geiago doguz, eta kalte andia egiten dautsoe giza-soiñari, ta goiberaldia sortu edo indartu.*

*Osagilleengana euren osasun billa joaten diranetik % 40'k, eurak jakin barik, goiberaldia jasadokoak dira. Eta osagilleak, lenengo, gaitz ori osatu izaten dautse. Ta, aldi luzea bear izaten ete da goiberalditik osatzeko? Gaurko orren aurkako osakaiekin illebate bat edo bi. Gizonak sortutako osakai barik, berezko sendabidez, sei edo zazpi illabete.*

*Gaixoari bere buruan ziiñiste-erazotetik ez litzake ezer lortuko. Sarritan, goiberaldunak jota dagozeneri, alegiñak egiñez bizkortu egin bear dabela esaten yake, euren etsipen, gogoera itun, uste-okerkeri ta buru-austeak uxatzeko. Baiña alperrik izaten da ori, alegin orreitan sakonago ondutzen da. Gaixo orreintzat bear-bearrezkoak dira osakaia. Ondo egingo dautse, orraitio, aolku ta argitasun batzuk euri, adiskidetasun eta begiramenez eskeinduteak. Esan bear yakena au da: Ez dagiela bizterea euren al-izateko neurritik atera, ezta euren gurariak be larregikoak izan; esaereak diñoanez: «izarea baiño urrunago ez luzatu oiñak».*

*Ta, azkenez, edo obeto esateko, lenengotik Goiko Guzti-Aldunari ziiñismenez egin eskaria; gero, osakaia artu, ta alegin guztiak egin ondoren osasun ona lortuteko, goiberaldi ori ez ba'da aldendu, gogoratu lurbira onetako bizitza ez dala gure atsedenerako, Jainkoaren naia egiteko baiño. Aitagurean diñogun lez «egin bedi Zure naia». Eta gaixoaldiak eta eriotzak naigabetzen ba'gaitue, betiko bizitza pozez argitu bear gaitu.*

# Libano'ko Izparlaria

Lengo urteetan lez, uda onetan Londres'en egon naz neure zeregintxuan; Eleizearen alde Erriarteko Katoliko Ikasleen jaupari ordezkoa egiten. Nire oporraldia artuko dot orain, andik etorrita gero, Abadiño'n, neure anai abadearen ondoan.

Bilbo'n nagonean atsegin izaten yat geure aldizkari «AGUR» en, edozein gaietaz, amabostero-edo idaztea. Augaitik egoki izango dala uste dot, an London'en entzun, ikusi edo jazo yatazan gauza oroigarri batzuk irakurle zintzoari esan ta jakin-erazotea.

Igaz, gure Euskalerra ta antxiñako izkuntzaz arduratzen zan japandar gazte bategaz izan gendun alkar-izketa idatzi neban. Aurten Libano'ko albistari on bategaz berbalditxoa izan dot. Londres'eko kaleetatik zear praille-soiñeko jantzita ebillen eta Erriarteko Ikasleen etxean ostatuz egoan budista jaupari bategaz be, alkar-izketa bat egitea gura neban, baiña ark, baietz esan arren, iges egin eustan.

Oraingo nire izketatuduna, ba, libandar albistari gazte bat da, gustiz eskurakoi, gizatsu ta eratsua, argaizkian agiri ta ikusten dan lez. Aldiz-aurretik jakin neban katolikua zala ta berak igarri ebanetik ni jauparia nintzala, alkar kidetu giñean. Egun baten asti-orduak izanez geure aukeran, ikasleen bizitegi inguruko kale baketsu artetik ibillaldi luzanga bat egin genduan, ta jardun-autuetan asi giñan.

Esan neutson: Benetan zuek, maomar erlijio autortzen dabezanakaz inguraturik bizi zarienok, zeuen katoliku-siñesmena jarraitu, cutsi ta zainduteko, merezimendu ez txikia izango dozue.

—Ez ainbeste. Aberatsak ez garanok, bizitzako bidea zabaldu bear dogunok geure alegiñez, lan edo ikaskizunak, kristiñau-katolikoan erlijioak eskatzen dauskun bizitzako gogorraldia ondo datorkigu. Aberatsak izan ezker, maomatar erlijioak tentaldira eroango gindukez, iru edo lau legezko andra eukitea ta elikatu al diran beste emakume gustiak itxiten dauanez.

—Alan be, azaldu ta argitu eiztazu, mezedez zelan Libano, maomatarren erlijio autor-tzaillak diran arabiar erriz ta lateriz inguratuta, zelan zustraitu leitekean katolikuntzan, sartaldeko ainbeste erri aurreratuen erlijioan.

—Libano'ko katolikuak Maronistak dira. Oneik, arabiatarren artean, eta euren alegin iraukora, ardura leiatsu ta ekiñaldi bizkor ta setatsuri eskerrak, sortu al izan eben geienak katolikuak diran laterri eder au. Ori lortzeko, neke andiak ta guda negargarriak Libano'k igaro bear izan dauz, baiña danok dakigu gauza onuratsuak zeregin, arazo ta buruauste samiñen bitartez egiten dirala...

—Zuk diñozunetik, itsutasun edo «fanatismo»ren bat izango dala zuen artean, ateratzen dot.

—Ez ori. Ango gizadi-belaunaldi gazteak itsutasun-fanatismo ori ezeztu ta aldenduten ikasi dabe jatorrizko politikea jarraituaz. Katoliku erlijio bitartez, sarkalde laterri andi, Prantzi, Itali eta abarri begiraten dagoz, ta maomatar bizieratik iges egiten dabe. Liban'go gazteak edozein muetako indarkeria gogoeta txartzat artu ta beti dabiltz orren aurka. Erlijioak eurentzat, aurrerapide ta baketsu bizitzea esan gura dau; augaitik guda, indarkeri ta matxinadak gatx-eritxiten yakez.

Liban'go katoliku mugimenduak, batez be Ekintza Katolikuak, Eleizearen arazoa dan azterketaz, gaurko mundu onetako prolema-asmakizunak erabagitzen dago, Eleizea gaurko barriztuaren pentsaeran ipinteko. Bestalde, siñiste zintzodun gaztediaren eragiña liturji, otoitz eta Jainko-bizieraren indar barri ta zustraiagoa ezartzeko alegintzen da. Erlijio irakasle aldrak (katekistak) borondatez, kristiñau ei irakatsi ta jakin-azoten gaurko Jainko-biziera gizartearen laguntza ta soroskian dala, ezetariko bereizkeri barik, erakusten lagunduten dautse abadeei.

—Eta zer uste dozu España'ko gaietaz, eta onartuten dozu ango erlijioa?

—España beti katolikua izan da. Ango erriak beintzat bere eraz katoliku erlijioa jarraitzen dau. Jesukristo jayo ta il zan lekuetan, Jerusalem'en ta inguruko errietan, nekez, gitxik autortzen dabe kristautasuna; España'n, oster, bai, ta euren poza ta aintza orretan egon oi da. Gizaldiz ebiltzan eztabaidaka ta gudukatzen kristautasun katolikuntza an irasteko. Eta latindar errien antzera batzuetan azalezkoa izan arren elijio ori, egitez eztaukie beste erlijiorik katolikuntza baiño.

—Iñoiz entzun dozu ezer Prantzi ta España erdian, Añamendi, dagon erriari buruz, Euskalerra dinotzenari buruz?

—Kondaira ta geografia irakurri dabenak, jakin bear. Bai, ba-dakit an erri eder bat dagoala ta bere izkuntza Europa'ko antxiñakoena dala. Ba-dakit zure erri orretan sakonez erlijio kristiñau-katolikuntza siñistu ta jarraiten dabela. Nire ustez, Irlanda'n ta Euskalerrian katolikuntza iñun baiño obeto bete ta gordetzen da.



# NERUDA EUSKALDUN

Orain iru edo lau aste dirala, mundu guztiko izparringiak, Neruda olerkari ospatsuaren eriotzea oiukatu eban. Gizatar danok ezaugutzen dogun abotsean, ikusi ta esan ezin doguna erakutsiaz, itxi dausku berak. Gizadia inguratzen dauan olasta eragiten dau, bere berben ostean tatarraz baiña pozaren pozez eroanez.

Neruda'ren olerkigintzak durundu izugarritzko konka bat dirudi.

Odolez euskotarra dala esan dogu idazpuruan. Baiña ez da olan osoro, irurenean baiña. Berak esan ebanez: «gizon ta erdi naz; erdi andaluziar, erdi euskotar ta erdi inditar». Abizen euskalduna Basualto dogu.

Euskaldunak lez gogamena astikorra eukan. Alan diño berak: «ez naz ni gogoeta distira ariñeko gizona. Geldiro pentsatu, asmatu ta ausnartzen dot. Txile'n ego-aldeko lurburu ondoan jayo nintzala konturatu. An, Ipar-Europa'ko jendearen antzekoak gara. Egurats otzetik gatoz. Eta izate onek egokitu ta baldintzen dau nire pentsaerea. Burutik irudiak lerroka doazala, sakonez ta astiro gogoetak otzagidaz. Niretzat bear-bearrezkoa da idazten jarraitu olerkietan irauli ta uste ta sentitzen dodan izadiaren une bakotzeko oar-ikaspena egi-egiz agertzea».

Olerkari onen aita-amak, Joxe ta Errosa izan ziran. Joxe lugintzan ez ondo ikasia, baiña bultzitrenen gidari ona. Ta Errosa ama, irakaste trebea. Seiña egin ebanetik, au da, bere lenengo seme Neruda zanetik, berrogei egunera il zan. Paul Nefstali —ona Neruda'ren leengo izena— Parral'en jayo zan. Umetaroko urteetan kanpo-zabaldegi, eguzki, uztaaldi, ogilanda, bizidun, eragidun, ta entzudun guztia Paul Nefstali'ri begietatik entzumenetik, eskuetatik sartu yakozan. Urte orreik Neruda olerkariarentzat, armen ase-bete bageak izan ziran.

Zergaitik aldatu eban ugutz-bateoko izena? Bere aitagaz asarretu zalako izango-ete-zan? Ori ez. «Aita iñori, batez be txiroa ba'da —diñosku gure olerkari onek— bere abizena literatur ibilketean erabiltea ez oi-yako atsegin. Augaitik Neruda izena artu neban». Jan Neruda txekotar idazlari baten artu da, ta Paul Nefstali'k ari zaletasun andia eutsan eta gaiñera ots-agi ederra egin be.

Amairu urtedun zala Parral'eko mutikoak, Temuko'ko «Mañana» aldizkarian bere lenengo idazlana argitaratu eban. Eta bai gogoratu oi-

yakon egintza au. «Egazti abesturutzaz lez —diño— egunero iru liburu iruntziten nebazan».

Erti-zolitasunera eldurik, bere olerkari mixteriosko abotsez bete-beteta agertzen yaku; erreka-txunku ta elaija giza-irudiaren matralla baño betiraunagoak dirala dakian benetako gizona, Ameriketako ibai anditzar uretsuak langoa, aixeen antzeko leun ta itzelkoa Estentor'en abotsakin eta Kaupolikan'en ausardiagaz bere bizkarretan eroiazan, ez zugatzak, bai olerki bertsuak. 1921'ko bere lenengo liburu Jaiaren abestia. «La Canción de la fiesta» tik, 17 urte eukazala, Neruda'k, ildako gurutzean antzera, bizi-bideak marratu bear zirala, eta giza-diaren itun-aldia, itxi ta aiztuta, amesaren besoetan jaurtirik egoala ba-ekian Paul Reyes Basualdo'k.

Zuzenbidez, ba, Suezi'ko Jakitun-Batzarrek Literatur Nobel Saria emon eutsan 1971'ko Urrilla'ren 21'ganean, «bere indarraren egikeraz Lurralde baten ames eta etorkizunari damotson olerkariaren egillea zalako». Amar urterik, Nobel Sari ori nok artuko ete eban, gitxienez berba egiten zan urtea. Luzaro ta ainbeste bidar itxaro ta ukatu eutsan Saria, beretzako izan zan. Berak esaten dauanez Sari au mito-jazoera bat biurtu zan bere bizitzan, gero izateko bizitzako gertakaria besterik ez.

Neruda'ren azkenengo idaztia Txile'ko iraulketari buruzko gorespina da. Oiñaze, miñaren miñez aberri onetan, bere aberri maitean USA'ren yaunkeriak egin oi-dauzan naikeriakaitik idatzi dau liburu ori. Ipar-ameriketar Lagundiak egunero milloi bat dolar irabazten dabez, eta dirutza au Txile'tik urtetan da lagundi orrean jauntxu aziuduentzat New York'era joan doa. Milloi dolar orreikaz zortzi milloi biztanleko laterri baten, zenbat ikastola zenbat gaxotegi, zenbat bidezabal eta burdin-bide egin leikeguz! Zuzenbidezko arazo, asmakizuna izan be?... «Baserritar bat bere soloe-tatik ezin dan lez urrundu, ni neu be neure denboratik, neure erritik, ezin aldendu».

«Ezin dot Aberria bananduta ikusi, ta zazpi aiztokin odol-utsituten. Txile'ko argia egindako etxe barri ganeak apaiduten ikustea nai dot: «Nire lurra guztioak artzen gaitu». Neure adimen ta biotza aberri zaletasunez beterik dagoz. Baiña ni neu bake zalea ta gizadia bare, lasai beti egon daiten gura dauana naz».

# AMAMA'REN NEGARRA

Ona emen urtedun andra on bat. Ikusi egizu bere bizitza ta zer jazo yakon orain illebeta bat edo bi.

Mauraza'tar Atanase'k, datorren urteko Orrila'ren 2'gnean, larogeta sci urte beteko ditu, Jaungoikoak gura ba'dau. Bere begi urdin sakonak, urteen eragiñez, margulduta daukoz, eta ulea, bere aroan urregorritzkoa izana, orain zurituri, dizdira batzuk oindiño gordetzen dituala dauko. Soiñeko baltz-baltzez jantzita, bere txalet antzeko basetxe dan maasti pean jesarrita ikusten dogu; Sondika'ko egazkin-zelaitik irureun neurkiñeko biedean, baiña eskabadora zulatzaillak atxurtutako egazkin-landa barria izango dan lurren erdian.

Andra Atanase'ri, bere alaba ta suiñeri, euren etxe ori itxi bear dabela agindu dautse, baiña eurak ez dabe gogorik ortik urteteko. Ta, orain arte beintzat, txalet-basetxe polit, matsondo orlegi ta lorategiz inguraturik ikusten dogu, bakar-bakarrik, lur atxurtu zulotu illunaren erdian.

Albistaria ara eldu yakonean, Anastase zutundu ta artega, barri-guraz, ez-ustean itaundu eutson:

—Zertarako bear nozu, ba?

—Zergaitik basetxea itxi gura ez dozun galdetzeko.

—Ene Jaungoiko Jauna! Ez dakit ondo erderarik eta ezingo nozu ulertu.

—Ez zaite arritu, astiro-astiro egingo dogu euskeraz.

—Zenbat poztuko nintzaken or telebiziñoan ikusten diranetariko gizon dotore batek euskera ba'leki, ulertu nagian...

—Zertarako, Anastase?

—Nire naigabeak esateko, eurak emoten dauskuezan atsekabe andiak.

—Ze atsekabe damotsue ba?

—Atera, bota gura gaitue geure-geurea dan etxetik. Ainbeste bear, izerdi ta -nekez jasotako etxe onetatik. Eta diñot, egintza gaizto ori ezin daike Jaungoiko Jaunak nai izan, ezelan bere ez. Euren arazo oneikaz ezin leiteke Jaungoikoa nastau; orreik ez dabiltz Jaunagaz. Guk, nik eta or zeru goyan dagoan senarrak, Antzuri basetxea gaunkan, eta orain zortzi urte, kendu euskuen egazkin-zelaia andiagoa egiteko. Orduan galdetu geuntsenean leku onetan geratu gintekezan, baietz esan euskuen. Eta orain barriro bota gura gaitue. Zelan izan lei ori zuzenbide? Zergaitik esan lenengoan baietz eta gerotxuago ezetz. Zeruan dagon nire senarrak eta biok, bear asko egin

dogu emen. Berak, izerdi ta neke andiz, laurleko bat irabazi бага, apaindu eban guzti au, berak egin bideak, lorategia, ta ikastolako oiñarriak be ipiñi.

—Baiña, amama —bitartekoa artuaz diño illobak— ze ardura dautsoz gizon oneri gure gauzak? Aitatu egiozu, emen geu ateratzera etorri zanari esan eutsozuzanak.

—Zu ixillik egon. Aoa zabaldu baiño len, jakin bear zeunke zenbat neke jasan eban amatxok. Dirurik barik ta izerdi askoz zazpi seme-alaba aurrera atera ta ederto dagoz. Basetxean jayo nintzan, eta emen bizi izan naz nire bizitza guztian. Nora joango naz orain? Etxemail orreitako batera eskillara ta guzti? Nire ainbeste urtekin ezingo dodaz eskillarak igo.

—Zuretzat bai gatxa izango da igotzea —diño inguruan dan zazpi urteko mutikotxo batek— baiña lagundu zaikete ta gero, erraz da jatsitea.

Eta Anastase'k, samurtasun mugagabez, txikitxoari begiratuaz eta eskuak batuta, diñotso:

—Iretzat, mutikotxo, izango dok erraz, baita izparlari onentzat be. Baiña ez ni lango zar batentzat.

Eta Anastase'k ez dau nai joan etxemailla batera, or geldi, iñora urten barik, alde bateti bestera etxe barruan egon bearko leukela ba-daki-ta. Atanase'k, matsondo barik izan da be, onelako etxe bat gura dau.

—Zenbat diru emongo dautsue etxe, baratz, lorategi ta txabola onein ordez?

—Gitxi-gitxi, ezin beintzat onelango beste etxe bat lortu.

Onela iñarduen bitartean, irurogei neurkin euren buruen ganetik, egazkintzar Boeing 727 andi bat igaro zan. Albistaria apur bat larritu zan. Baiña Anastase'k larritasun guztia kendu eutson, esanaz:

—Itxi dagiguzan egazkin orreik. Doazela danok inpernura, ez baiña barruan doazan gixajoak; orreik beintzat ez dabe errurik. Zuk, artu egizu limoi-edari otz au, bero be bero da-ta.

Anastase, ona da, ta batez bere jainkozalea. Egunero amabost amarreko iru agurtza errezaten ei-dauz, bata Garbitoki'ko arima doatsuen alde.

Abando'koaren «Mendiko negarra» dirudi amona onen berbeteak.

# Euskaldunak Ameriketa'n

Erri-ibiltarien artean tokirik-eta gorenetakoa dau euskaldun endeak. Kondairak diñskunez ibillaldi asartsu ta bizitza ustekabea maite dauan abenda au ibiltaria ta andizalea da. Anibal'en ikurrin pean lerrortzen zan antxiñako aldian gudatarako zira-rean; Erdi-mendeko azken urteak mundura bakea ekarrenean, urruneko arrainketak eta salerosteak egiteko itxasontziak tresnatu ta cratzen ebazan, eta Ameriketa aurkitu ta laster, gogobero, gartsu ta alaitasunez lagun-du eban ango erri-iraste ta kolonikuntzan.

Abenda barruratu au bere ibar, aran sakon ta etxe inguruko trokartetan itoten zala dirudi; bere biri indartsuak arnasa aundia-go bear dabe ta egurats-aize geiago. Augaitik euskalduna, bizar lumatzak asitean, ur teten da, bide-zorroa artuta, or doia Itxas-osteruntz, zorion, adu ta al-izatearen billa.

Andaluz eta gaztelarrak Ameriketa agertu ba-eban be, euskaldunek erriak sortu, antolatu ta aberastuten ebezan. Onein lan ta zeregiña ango gizaldrea menperatzea baiño, eratu, ezi ta kristiñatzea izan zan. Euskaldunen laguntza barik ez zan elduko Ameriketa ain goienetara.

Lenengo bialduriko gudari ta zorizale badaezpadakoak erregeordezko arro, legegizon aundiki ta sasilegelari gosekillekin batera, Ameriketako egintzeak uts egingo eban. An, gizon on ta beargiñak, jende burupide, egotaldi ta adimen egiterakoak bear ziran.

Euskaldunak ta beste Kantauri erriar batzuk egin eban ango gizakundea. Lenengo zorizale badaezpadako ta aundikerizko lege gizon ta sasi-legelarien ostean, salerosle zintzo, luginza beargin ta agintari zentzundunak ordezkoa egin bear izan eban. Erri ta uriak sortarazo ta antolatu bear ziran ta euren oiñarriak jarri; baliatu, onurea atera ta erabilli; bertako jatorri aberastazun iturburuak sortu; soloak mugatu; lurak landu ta erein; bei, ardi ta etx-abereak azi ta gorde.

Gizaldrak be maitekiro zuzendu ta agindu bear ziran, ta ez gogor indarkeriz, eta ondasundun zabalketa lagunarteak ipiñi, ta atondu.

Euskaldunak inñarduen uriak irasiten eta Ego-Ameriketa'ko aundienetariakoak: La Asunción, Santa Fe, Buenos Aires, Montevideo irasi ebezan. Buruzagi ta zuzendarien lanari ekiñez, zortzi erregeordezkari emon cutsen Peru'ri; Mexiko'ri amar; Nueva Granada'ri lau; bi Buenos Aires'eri, ta zortzi guztietako agintari. Baita ainbeste gotzain, abade, praille, ebanjelari, inditarrak Kristo'ganatuz, eskolatuz ta gizaberatuz.

Salerosle ondo ikasiak izanik, lagunarte ospatsu bat, al-izate miresgarria izatera eldu zan «Gipuzkoar Lagundia» izenekoa irasi eban Caracas'en. Onen diruekin itxas-argi bat eta Santa Maria Eleiza Nagusia egin ziran Donosti'n. Saleroste Lagundi onck lur izugarrizko zabal luzcak landuten ebazan Venezuela'n. Eta laterri onetan euskotasun beteriko koloni-erri ederra irasi eban. An orduko euskal-erri sortetxe bat ba'litz lez, euskal izkuntzea erabilten zan. Ori bai erdu ederra lengo ta gaurko euskaldun guztizantako!... Bero aldeetatik, igali gozoak aldazteko ontzidi oargarria be ba-cukan.

Peru'ko Erregeordetzan lugin-koloni ta saleroste aundiak eukezan euskaldunak. Indartsu ta aldunak izan bear ziran Bicuña'renak deituten cutsen-ta. Bein baiño geiagotan arerio bekaiztien aurka burruka ta benetako gudakuntzak egitera bearturik ei ziran.

Egite adierazle au oartu daigun. Kolonikuntza lan gatz eta gogor guztietan, Arjentina'n beintzat, euskaldunak eskubide ta ordezen ugariak izan ei-eban; kolonietako zuzenpena ta agintzea eurekanatu ebela esan ledike. Irala'ren ondolik Ayolas agertu zan eta Irala'ren suñia, Francisco Ortiz de Bergara. Gero buruzagi zeregiña Juan Ortiz de Zarate'k artu eban.

Onen aginpide bitartean etorri zan Juan de Garay be. Erakutsi ebanek, kolonigille, erri-irasle osoa izan zan berau. Eragiteko eskubidea emon cutesnean laurogei gudarikaz ta mille inditarrekin irasi eban Santa Fe uria. Baiña egintza onegaz ez zan pozik geratu. Pedro de Mendoza'ren utsak mederatu ta bete gura ebazan eta munduari agertu sorospide ta eskuarte asko barik egintza andiak lortu leikezela, ganorea, adimena ta bizkortasuna izan ezkerro.

Bere lagun artean lurak zatibanatu ebazan, cleiz txadonak egin, enparantz ta kaleak zabaldu, inditar taldea poztu, ta, beste uri bat irasi: ospe andiko Buenos Aires. Ori-gaitik Garay'k arjentinatarren artean gore-nengo begiramena lortu eban.

Amaitze ta azkenduz, ona emen ango ikastoletako edestian agertzen dan esaldi labur, txeratsu au: «Kolonikuntza aldian Garay izan zan onenetarikoa. Bere izakerearen zindotasun, gobernari aurrerakoi ta zuzen-zale izateagaitik, gitxiarik, bera izan zan gizatalde buruzpidatuen oneretxi ta begiramena irabazi ebana».

LETONA



# BEGOÑA'KO AMARI

Txile'n bizi dan Aita Roke Mendizabal'ek bialdu dauSKU idazlan au, gure asteroko onetan argitara emon daigun. Olantxe difosku: «Argentina'ko Mendoza uri ederrean izan naiz amabost bat egun, neure arreba moja ikusatzten. Egun batez, Garate osagillearen sendiaz arrats-askaria artu eta euskeraz gogoz jardun genduan. Bein ta barrero Garate jaunak esan eustan: «Aita, zuk idatzi euskeraz idatzi egin bear dozu». Eta bertan artu neban asmoa. Aren esanak bultzauta, zuen eskuetan ipinten dot nire idazlan kaskar au. Ez dakit zenbaterako nagoan ludi onetan. Alde egin baño len, Begoña'ko Ama maitagarriari ome-nditxo au eskeñfi gura dautso».

A.

laungoikuaren Ama,  
Begoña'ko Ama,  
Aintza ta aintza zuri,  
Bizkai'ko Erregiña.

\* \* \*

1. Antsiñako aldi baten  
Artagan mendian  
diño Andra Maria'k:  
«Bertan bego ña».  
Arrezkero or dago  
Bilbo'ra begira,  
Aintza ta aintza zuri,  
Bizkai'ko Erregiña.
2. Aingeruen artian,  
argiaz iantzita,  
urrezko burestuna,  
besuetan Seiña,  
agiri da irri-barrez  
Begoña'ko Ama.  
Aintza ta aintza...
3. Goikuaren Semia  
Iesu Seintxu ederra,  
Gogo Donegandik  
Neskuts-Amarena,  
laungoikuaren Ama  
Begoña'ko Ama.  
Aintza ta...
4. Ixastar, nekazari  
eta langilliak,  
aundiki eta apal,  
bizkaitar erriak  
Begoña'ko Ama dauko  
bere Zaindaria.  
Aintza ta...
5. Ugolde, goxe, guda,  
ondamen aundian  
goibel Bizkai'ko erria  
ikusi danian,  
mirariz gaitzatu dau  
bere Zaindaria.  
Aintza ta...
6. Mendi ta urietatik  
erruz Amagana,  
Bizkaitar fededunak  
Begoña ikusi-ata  
gogoz abesten dabe:  
«Agur, Erregiña».  
Aintza ta...
7. Urrinhaldera ioan-da  
errimiñez iota,  
Bilbo'ko ibaitik gora  
ontze datorrenak,  
Begoña'ra begira  
diño poz-dardaraz:  
Aintza ta...
8. Naiz-eta egin arren  
orru Inpernuak,  
naiz-eta emon bear  
odola bidian (\*)  
bizkaitarra igoko da  
bati Begoña'ra.  
Aintza ta...
9. Begoña'ko Ama maite,  
Birjina Maria,  
negarrez eske gatoz,  
eske gaur Zugana:  
Bizkai'ko erria zaindu!  
Zaindu Euskaleria!  
Aintza ta...

(\*) 1903, Urtillak 11, Begoña'ko Erregiñaren burestuntze eguna. Bizkai'ko kristiñauak bidetxune aundi eder gertatu dabe. Elexaren arretioak, bidaldi orf izan es dadin, bidetxarici utroka egingo dautsela zemaitu dabe. Ala ta gustis be ogel milla bizkaitar fededunaz Begoña'ko bidetari ekin dautse. Baita arretioak zemaita bete be. Suiskilluz jaurti, ta gisonesko bidetari batek zuri bi bularren artu ta bidetari bertan odola ta bizia emon dau. Baita ogel millok, sifisimen eta kemen aundiaz, Begoña'ra bidet jarraitu ta amaitu dabe, eta Erregin maitagarriari martiri odolaz ederturiko burestuna eskeñfi dautse.

MENDIZABAL'TAR ROKE C. S. V.

Begoña'ko Amaren Goramenak  
- Erriak - Astiro

laungoikuaren ama, Begoña'ko ama, aintza ta aintza  
zuri, Bizkai'ko Erregiña. Antsiñako aldi baten  
artagan mendian, diño Andra Maria'k: "Bertan bego ña".  
Arrezkero or dago Bilbo'ra begira.  
Aintza ta aintza zuri, Bizkai'ko Erregiña.

# GAURKO OTOIA

Zelan agertzen yaku egunotan otoiaren egoera? Eguneroko jarduerak arakatu, aztertu ta ikusirik, otoiaren izamen eta gaurko bere jobabidearen eta bizikeraren artean, gero ta geiagoko batu-eziña agertzen jaku. Otoitzak tokirik ez daukala, erbestekoa dala, elburua, garrantzia ta zentzuna galdu dauala, diño, erokeriz, ainbestek.

Agerkari onen zioak begiratuta erakustea ez da zail. Otoitzak, bear dau-lako, gogoeta barru-barrukoa eskatzen dau, ta ori gaur egunotan eziña edo zaila izaten da; orretarako ez dago almenik, ez gaitasunik, ezta jainkotar ixiltasunean egoterik, gelditzerik be.

Otoitzak ez dauku agertzen munduko aberaspide mailarik; bera, biotz-barruan, maitasun eta grazizko mailletan aurkitzen da. Gizaegintzentzat alpe-rrazkoa dirudi. Gaurko gizartea, azal-utsezko atsegin zalekerietan ondatu ta murgilduta dagonez, jainkotar gogorik izadi irudizkorik zer dan ez daki. Ziñestuak daukan Jaungoiko bizidun maitekorranako gertakizunetik ernerazi, sortu ta urten bear dau otoitzak, eta barrenengo ikasketa onetan, goiko sakon-tasunak ikusiko dauz, eta Jaunaren bear-bearrezko laguntasuna ikusi argiro erabatean.

Baiña zoritxarrez gaur erabil oi diran filosofi gogamen azalezkoetan, Aita on ta Salbatzaillearen antzirudietan gomutatzea gizon-notifi gizajoen ameskeri ta irudimenak ei-dira.

Alan ta be, egunabar barri bat etorri dator. Eta ez uste goiznabar au otoi-esamesaken oiturazko zeaztasunean dagoanik. Sarri askotan orrelango otoitzak ez dira biotz barrenean erneten. Otoitzaren izkuntzea ez da izan bear esamesa, larregiz buru-asmautakoa. Espiritu Goteuna ziñestun taldeari eragiten dabil. Kristiñautzat, Kristo'ren arpegian ezautzen dan Jaungoikoaren kabu ekin-bideari erantzuna, otoa da. Kristiñau bakotxak, ekinbide orreri, otoitzetan, jarraitu bear dautso egunero. Egokieran, begiraldi gaietako batek arduraz ipifi bear diran izagai barriak argitaratzen daukuz. Orain kristiñau zintzo asko ta asko geure gizadi barruan egindako begiste batetik asten dira, eta alda-kuntza atzera-eziña ta bearrezkoa ikusten dabe. Laster ikasi be ezin leikela, bizirik gelditu, dan gizadi ori lagunartean antolatzen ez ba'da; beraren jakituri, teknika ta izadiaren iturburu lan-gaiak zabaldu aunditzen ez ba'dauz.

Eta oiñarriko utsune ta okerkuntzak, orreitan egin dirala guztiok dakigu, baita, zuzenduten ez ba'dira, etorkizun kaltegarri zoritxarrezkoak izango dirala be.

Kristau onak entzuten ditu Aita Santuaren berba argiak: «Beti barriz-tatzen ez ba'gengoz, ez gintzakez kristiñau zintzo izango». Batera ez datozenen ikusmin (nostalji) igeste (ebaziño) naste ta eziñ-egonak zear, gizaldi muetaren goraldia, ta bizitzearen zentzuna adiratzten da. Oiñaze, miñ, atsekabe, zapaldi, ust-eragite, eroan-eziñaren zear zeozer csan gura dau gizonak.

Billaketa oneik zabaltze edo edegiteak, ugari sortzen ditu: edegite au misterizko ixiltasun barruan dagon izaki altsurantz doa, gogoeta bidetatik sakonerantz biotz-giroz, olerkiz ta liraldiz, edegite au izadirantz, ta aren adie-razpena dalako, gure soiñaren bearkunderantz doa; edegite au errien kultura azalpen luzakor zaillaren bidez, gogoen etorkizunerantz doa, zabaltze au, abenda ta errikoen alkar adimenerantz doa. Guzti ori ez da bereziz kristotarra, batzuetan orren utsaldia baiño. Ba'liteke, orraitio, oraingo gizadiaren gerta-kizuna, bere izaeraren doneste zatia izatea.

Olango zabaltze ta edegiteak datozanean, jakingureak gomutarazoten daukula otoitza, ta beraren billa erabilten gaitula, agirian dago.

Orra or ba otoitza csangura zabaltsuz ulerturik; gogoaren izaera, kidego alkartasunean beronek deitzen dautsanakin, berau ezotu ta inguratzen dabe-nakaz, bide bat soil eta ororen bakerantz, Egirantz gogaketa guztien gañetik artu, eskuratzuz. Bide onetan Jaungoikoaren distira antzaren ikusbegia daukan edozein gauza, Arekin alkar ezautu ta aurkitzea egiten dauana izan ledike. Egitez, batzuk aurkitzen dabe Jauna, eta aurkitzerakoan, egi-egiz, Jaunak be aurkitzen ditu eurak.

Orduan bai otoitzak tankerea ta itxurea artzen dauzala!

Otoitza zer dan, edozein kristau ta gizonak itandutean, begiratu, ikusi esan doguzan baldintzak ditun. Ona emen alkar itandu ta arduraz gogartu ta arakatu daikeguna.

# Guru Maharaj Ji

Nor da gizaki au? India'tar mutil bat. Amabost urteduna, metro bat eta ogeta amabost zentimetro neurtasun ta larogeta lau soin-pisukoa. Latz-ikara pelikulak atsegin yakoz eta urezko zizpolean olgetan dau. Gozo-izozki ta txokolate jan-zale aundi da.

India'ko Hardward urian jayo zan. «Dail Mail» izparringiak diñoanez gitxienez emeretz urte ditula, uste dau, India'tar Gobernuak.

Bere aita il zancan, guztientzat toki agirian berbaldia egin ei-eban lenengoz. Emen sarkaldean, gure artean, ogei «mahatmak» edo arima osoak baiño geiagok eurentzat irakasle ezin-obe dan Maharaj Ji'ren otseinketan eskeindu dabe bizitza. Eurok izan dira aren gogoetak zabaldu dabezenal 1971'ko bagilla'ren 17'gn egun aundi arte. Egund onetan London'era etorren Guru Maharaj Ji berbera, ta sarkaldeko munduakin artu-emon zuzenean asi zan eta asteroko aldizkaria, «The Divine Times», argitaratu.

Naizta Guru'k bizi onetako ardurarik izan ez, sei milloi laurlekoren etxe baten jabe da Londres'en ta sukaldari bi beraren janariak gertatzeko dagoz. «Rolls Royce» bat berak erabilteko dau. Beste «Mercedes» bat dauko beretzat. Ama ta iru arrebak «Jaguar» baiño berebil merkeagorik ez darabile iñoiz. Ainbeste aberastasun nundik ateratzen dauanik iñork ez daki. Antza danez, bere sendia ondasunduna izango zan, bere aita lenagoko pelikuletan berebil dotorekaz ikusten zalako. Au bai dakigu; bere jarraitzaileak emoten dautsela dirua berak eskatu barik be.

## TA ZER DIÑO GURU MAHARAJ JI'K?

Erromes aldiak India'ra aitatu bage, Johannesburgo'n, Denverse'n, London'en, Houston'en, azkenengo urte bietan mundu guztiko biltzeak ospatu dira. Biltze oneitan abestu egiten da, Guru'k itz oi-dagi, ta itaunketak dagoz. Onelengo abotsak entzun daitezke: «Guru Maharaj Ji, guk maitatzen zaitugu», indiatar andra batek aren jaurraliki ganerantz usain gozua ixuriten dauan bitartean.

Bakea ta ezaukundera predikatuta irakasten dau Guru Maharaj Ji'k. Ez dago azalpenik ezaukundera zer dan esateko; lortu lediken gauzea ei da, egiterakoa izanez. «Paris Match» aldizkariaren eritxiz, lortzeko bidea erraza ei da. *Yoga'n* oiñarturiko soinketa nasai, poz-arindu jarduerak egin bear ei dira, ta euren ondorengoei «Eredu-gaiñeko Argi Urdiña», «Izarren Eresia», «Eziñ-esaneko Jainko-edaria», «Lurraz gaindiko ezaukundera» deitzen yake.

Jarduerak ainbatean jarraiturik, gurari loi ta kaltegarriak zelan-alango seksu-kunde-leia, jan ta edateko larregi bearra, ta tabakorri zalckeria, kenduten ei dira. Batez be «yoga» ori irakatsi ta erakusten dau Guru'k.

«Yoga» dala: India'ko filosofi-deunbide-arauketea jakin bear ei dogu. Arima ta soiñaren arteko burrukaldi aurkeztasunaz oartuaz, ikugaiären (materia) astuntasunetik, gogoaren (espiritu) askatze osora eldutea erabagitzen ei dau. Goraintzi, aolkaturiko biderik onenak ixiltasun arnasaldiaren arautze, somaren gogortasun eta gogo-arimaren barruratzeta ei-dira.

Guru Maharaj'en jarraitzaileak ikaslearen irakaste ta irakatsiak erreljio gauzakaz ezabela zer-ikusirik diñoce. Baiña batzuk ziñauskeri irudiko antza dabe.

Origaitik, kristauak ta Eleizearen seme zintzoak aren ikaskizunak onak diranentz arakatu bear dabe; eta eztabaida zalantzetan, Eleiza Amaren jakitunei itaundu. Izan be, emen Bilbo'n Eleiz barrutiari argitu daijala gai au eskatu ei-dautse.

Sarkaldeko zazpi milloik oraingoz beintzat, jarraitzen dabez Guru'ren ikaskizunak. Bilbao'ko aita-amak arduraz egon bear dira, joan dan dagonillean neskato bat, ikaskizun barri onen jarraitzaile eginda gero, aldendu zan eta ezta kigu nora.

Iralabarri'ko prantziskotarren gela nagusian biltzea izan da oraintzu. Biltze onetan guraso batzuk, estutuz ta atsekabez errenkuratzen ziran, gazteak etxetik iges egin ta ikastaroa itxiten ebela, alan be, beste batzuk euren seme-alaben jokabide-biziereza «Jainko Argia'ren Misiñoa» gaz (olan deitzen yako Maharaj'aren targoari) obeagotzen joan dirala.

Ainbeste eritxi desberdiñ ikusita, laster baten guraso ta seme-alaben arteko biltze bat ospatu egin bear zala, alkarren ezaukundera elduteko erabagi eben.

Orain diñot, baiña izan leiteke egia, iñoiz euskaldun zindo benetakoren bat, Kristo betiko Gure Jauna, Jaungoikoaren Semea Berbera, ala indiatar mutiko lodi, mizkin, aberatsa aukeratzeko zalantzan egotea? Olangorik!

# ODOL-EMOILLEAK

Bizkai'ko Gizarte Babespean dagon Anaitasun Odol Emoilleak urte onen azkenerako elburu bat erabagi izan eban: lau milla emontzaille lortutea. Aurre-ikuste oneik zabalki gaineratu dira 4.649 lagunartek —euretarik 3.360 gizon ta 1.289 emakume— azilla'ren 20'rako erazko karnet-agerkaia euken-eta.

Argibide onein arauz 1973 amaitzerakoan Alkartek onek 5.000 emontzaille, uste eban baiño milla geiago izango ditula uste dabe. Azilla'ren 20'rarte egindako eskein - emoitzak 6.340 izan ziran, beartasunaren ardura izateko 2.624.350 ontzi-litro guztira emonaz. Egin diran zenbaketatik bearrezko erantzutekoak osasuntegietan gordetako, Bizkaia'k egunero larogei eskein-emoitza bear dauz.

## LANGINTZETAN ATERALDIAK

Bestalde, Gizarte Babespeko Emoilleen Alkartek ori, ara deituten dautsen lekuetara, bizkor eta arduraz ibilli dabil. Ekiñaldi onetan, joandako Azilla'ren 14'gnean Barakaldo'ko Kooperatiba La Kruz'era 104'emontzaille eldu ziran. 15 ta 16'gn egunetan, Sestao'ko S. A. Ontziggille Lantegi'aren biotz-oneko 310'eri odola ateraten asi ziran.

Ekiñaldi oni jarraituaz, asmo bi geratzen dira egiteko. Odol Alkartearen bazkideak geiagotzeko ta odolaren bearren erantzutekoak eukiteko, Firestone ta Olarra Langintzetara joan ta eskatu dabe euren laguntza.

Odol Emoilleen Alkartearen ekiñaldi eder onek zio oneitan ditu oiñarriak:

1. Odola egon-arren, geiago bear da.
2. Ezin daiteke odola egin.
3. Besteen odolaren bearrean zeu be egon zaitezke.
4. Gizadirentzat lotsagarritzko arazo ori beingoz amaitu bear dogu.
5. Odol taldeen batu-eziña.
6. Kontzientzia edo biotzbarreneko agindua da.
7. Kristaudentzat, Jesukristo'ren bide ta erakutsiak obeto jarraitzeko lagun.

Arrazoi onein alde ona emen urrengo gogoetak.

1. Bizkai'ko Odol Emoilleen Alkartek bakarrik 30 ontzi-litro odol bataz beste egunero bear dauz. Urtero 10.000 ainbeste ta ainbeste bear diran odol-sartze egiteko. Beartasun onen erantzun egokia ez da izango 15.000 emontzaille iraunkorren neurri jakiñak euki arte.

2. Laterrian odol bearrizana ez da ezelanbe ondo arduraturik. Ba-dira naiko uri ta erri aundi ez daukenak, odol emoitze egoki ta bidezkoan, irauterik. Augaitik bizitza asko galduten dira, batez be bearrezko estukuntzetan eta alditzarretako ustekabeetan.

3. Tabakorri txokor txiki bat egunero erretea kaltegarriago izan leiteke, 300 neurri gramu odol emotea baiño. Ez litzake iñoiz gizonik, andrarik edo umerik il bear bearrizan unean odolik ez egoalako euren emon edo aldatzeko.

4. Odola ez da saldu ez eresia izan bear. Bear dauanakin anaitasun eta alkartasunaren lokarri baten lez, emon eta artua izan bear leuke odolak.

# Irugarren adiña

Europa'n gizarte zuzentasunaren benetako irudipena Suezl da. Irugarren adifientzat egiten dan zar-sarian dago bere izate garrantzitsuena. Danetako suezitar araubideak irurogeta zazpiren adiferako zar-sari aurretiz edo lendik ikusten dau. Alan be, ango sindikato-alkartasuna irurogeta bostean izan bear dala -zar-sari au eskatzen dabil.

Baiña suezitar araubidearen jatorrizko berezitasuna, langilleei euri zar-sariko adifianaren aukeramen eskeintzea da. Irurogeta zazpi urterarte itxon baiño lenago edozein langillek, irurogeta iru urte izan eskero, itxi lei bere biziko lana, aberriko emoitzea, onurea ta zar-saria eskatuaz. Langilleak luzatu lei baita, adifin-muga ori, bere bizibideko bearra irurogetamar urterarte ta geroratu zar-saria jasotzea.

Jakiña, aukera onek diruzko ondorengoak dakartz. Illebe bakoitzeko zar-sari aurreratuak (au da, irurogeta iru ta irurogeta zazpi artean) % 0,6 zar-sarien emoitzeatik txikitura dagi. Beste aldera, adiña mugatik aruntz lanaren luzaketeak (irurogeta zazpitik irurogeta-amar urterarte) 0,6'an izaten da goratua.

## ZAARREN ALDEKO ONURAK

Erritasun eta egotaldi baldintzak izan eskero, Suezl'n urtedun guztiak eskubide ugari dabez. Udaletxeak bizitegirako alober betegarria damotse urtedunei. Errenta edo irabazien azterketa egiztapenak egiten dira, zenbat eta zelan emon bear yakon jakiteko zar-saridun bakoitzari. Urtedunen irabaziak aunditsuak, muga gainez agertzen ba'dira, azterketa orrek arcin onurak laburtu, bear bada, ezereztu daitezcan ardura artuko dau. Udaletxeak eurak eta batzar-buru nagusiak euren gaixotegietan zaindu bear diran gaixoei izendatzeren bat emon leioe.

Orrez gainera, guztiz zar-zarrentzat, ba-dira beste erri altcorreko onura batzuk be. Euren zar-sari onurak laterriko emoitzeatik bakarrik ba'yatorkez, mozkin zergea kenduten yake. Zar-saridunok lten diranean, andra alargunari emon bear yako laterriko zar-sari emoitzea, edo adifinez azpiko ume zurtzei, baiña ifioiz bez gizon alargunari.

Laterriko eskuarte errenta-sari orreintzat zelan egiten da? Erraz. Eparaturiko beargifien diru zembaketaz eta Gobernuaren sorospidez.

Suezitar danak, amasei urtetik irurogeta zazpirarte egin bear dabe eskuarte diruketa ori zarrentzat. Gobernuaren sorospidea eunetik irurogeiraiño elduten da, % 60.

## GAXO-ALDIRAKO BABESA

Zar-saridunak beste enparatuak lez euren gaixotasunetan onurea artzen dabe. Osaki batzuk osakintzetan duan emoten dabez. Adibidez, insulinea lortzeko osagillearen izonpena baiño besterik ez da bear. Gaxotegiratze eralketa guztiak ordaindu barik egiten dira. Sendagillearen osabideak artzeko bear diran joan-etorriak be duan dira, lau txindi korona, ta uri aundi batzuetan bost baiño geiago izan ezik.

Zar-zar diranak, emoitza bereziak lortu leikiez: bizitokiak obetu, ura ekarri, argindarra ipiñi, estoldak egin, ta berokiñiak jarri. Baiña iraun-eragin eta eusteko lanak ez dabe dirulaguntzarik artzen.

Bizitza erari buruz, irugarren adifianaren erri-yaurkintzak ez dau urtedunak euren bizimodu oneko eran luzaro bizi daitezcan gura bakarrik, baita egitarau desbardin ugari asmatu be zarrak ifioren laguntza barik bizi daitezcan, era askotariko bizitegiak aurkeztu ta erakutsiaz.

## ZAR-SARIDUNEN ETXEAK

Adifinezkoren bat bakarrik ezin danean bizi, naita ikertzearen laguntza izan, udaletzeko zar-saridunen etxean sartu ta onartzea eskatu lei. Orrelango etxeetan ez da izaten bardin bizierarik. Eta zar adifin-adifin-sua, senda-ezin gaixoz mindurik, eta sendagillearen zaintza iraunkorra bear izanez, edo bere osasun bizikerak ingurukoei ardura andia emon, gaixotegiratzen dabe, osasun-etxetara.

## ERRI-YAURKINTZ INDARTSUA

Suezl'k irugarren adifiekoein alde erri-yaurkintz indartsu bat egin gura dau bete-betean. Orain, laterriko zar-sari ta emoitza betegarriaren bitartez, urtedunen diruzko ziurtasuna eginda dauko, ta zainduta bere eroste almena salneurri aldaketean. Orain, Suezl'ko agintari aldundunak, urtedunei gizarte laguntza osoa emoteko alegifetan diardue. Azkenengo urte onaitan, euren erabagi burubideak bete daitezcan, batez be irugarren adifientzat egokiak liraken etxe laguntza eta bizitokiaren egin-tzan, ibilli dabilla.

# AMESAK

Ames-gaiak arduratzen gaitue batzutan, baiña eurak adierazteko, ez dogu alegin askorik egiten, eta Esfinje'aren eskutukian lotzen gara edo onen misterioai erantzun baga. Alanbe, amesak obeak izateko irakasten daukue. Delfos'eko igarile-erantzunak eta Kumas'eko Sibila azti-itzak lez, zentsutasuna emon geure arrokeria ta utsalakeria erakutsi ta lagun askoren salakeria agertzeko alengintzen dira amesak.

## Zergaitik egiten dogu ames?

Azti-amets adiezlariek buruauste batzuk ipinten diardue ta itaunduten dabe zergaitik batzuetan ames egiten dogun ta beste batzuetan ez. Laster nundi-nai sortzen dira erantzunak. Lo ta amesaz liburu garrantzidun bat idatzi dauan Delboul'entzat, amesak soñeko aldaketak ei-dira. Adibidez, etxe-labe, auspo ta kezulokaz geure birikak antzeratu, iruditzen doguz. Auspoa ez ba'dabil ondo gure biriak txarto dabiltz. Arri aundi batek zapaltzen gaitula ta bide estu batetik igarotzen gareala amesten ba'dogu itxura-irudiak artega, urduri ta atsekabe-estuadiak iruditzen dagoz.

Delboul'en baiezkoean ba-dago egi zatirik. Olan, jazo yakon bateri: ames egin astiro-astiro itsututen zala; ta ikusmeneko gatx bategaz aurkitzea urrango goizean itxartuterakoan. Batzuetan be egoste (dijestio) astunak ikuskizun lazkarri izugarriekin ames eragiten daukue.

Ames-jazoera batzuk ba'datoz be kanpotik. Maury'k bere ames-gaietako idaztarian diño: «Robespierre, Marat, Fougier-Tinville ta lazkor aldiko ikaragarri itxura-irudiak ikusten daz; euren eztabaida gogorretan diardut neuk be, eta ainbat gertakera ondoren, epaitu ta eriotzara naroe Iraulketa zelai-enparatzera, orduko esku-gurdietan. Au amesetan nengoala, orduan bertan, nire amak esan eustanez, egitada bildurgarri orreik jazo ziran.

Oraindik ezkagiu zergaitik, norbaitzuk, baltz ta zurizko gauzetan, eta beste batzuk, kolore-margotactan amesetan egiten daben. Baita izan leiteke, amesak, gure gaixoak eta eriotzea bera aurretiaz esatea.

Eleizako kanpaietan, amesak izan doguz danok oe-maitxuko iratzarlearen txirriñak ots egitean. Baiña bakezko ots-dei zarata onek ez dauku atsekabe larrialdirik emoten, eta bear ba'da aurrera goaz lo-gozaan.

Alan da guzti be, eguneroko oarpenak erakusten dauku amesak sikologi sorkundean bakarrik, geienetan beintzat, daudela euren iturburua. Ames egiten dogu, besterik gabe, ames eginbearra daukogulako.

## Ames-zenbaketa

Baiña ames-zenbaketea aitatu daigun. Orain urte batzuk egin zan ames-zenbaketa au. Calvin S. Hall'ek ainbat lagunarte ikustatu ta izkatu ebazan, eta amar mille ames baiño geiago arakatu ta aztertu ziran, euretariko mueta bardiñ ezakaz konturatuaz. Adibidez, amesgaiak, ona urrango ondorengoak: automobil-berebilletan, eunetik amairu; etxe batean, eunetik amai-ka; jolas-tokian, eunetik amar; ibilketa edo kaletan, euneko bederatzi; kanpo-landetan, euneko bederatzi; saltoki ta gordetegietan, 100'tik 4; ikastolan 100 tik 4; lan-gela, lan olan, 100'eko 1. Eunetik amalau bat eleiza, gaixotegi ta ardaundegi artean banaduten ziran. Bear egiten dogun tokietan nekez ames egiten dogula agiri ta ikusten da zenbaketa onetan. Gizonakaz bi bidar geiago andrazkoekin baiño ames egiten dabe gizonetzkoak.

Begietatik burura sartu yakuzan toki-alderdi, gauza, izakai ta notiñak gorde ta eutsiten doguz geure oroimen-gogoan. Ori jazoten da bidegitean gabiltzanean ondo ezagutu barik gure alboan igarotzen diran alderdi inguruakaz. Gabean, begiak ixita, alderdi ezagunak izan ez arren, an bertan buruan argazkia egin al izan dabenak, lerroka dabiltz geure aurrean.

Erdi itxarturikoen irudiak «hypnagogics» deituten diranak, aitzu doguzan gauzak gogoratzen daukuez, esaterako, egi urte-edo, nire gogo barrenean aitzurik egon ziran jostaillu areik. Maury'k dakarren jazoerak egin lei ulerbidea. Lotan dagon bitartean, bere aurzaro egunetara bihurtzen da, Trilport'eko erritxura eroaten dabela amesak. An gizon bat dakus «C» talde-jantziz izenagaz ta diñotsola kaiaren jagolea dala. Itxartu ondoren, Maury'k, lotan agertu yakon jagolearen irudia irudimen utsa dan ala ez jakin gura dau. Aldi bat geroago, bere aitari otseinduten eutsan neskame zar bateri ta berau sarritan Trilport'era eroan ebanari itaunduten dautso. Otsein zarrak, erantzun eutsan, «izan be 'C' izeneko kaiaren jagole bat ba-egoan, zure aitak Marne ibai ganean zubi egiten eban aldian».

Halvin Hall'ek amesleriak dagian egintzaren zebaketa bat be egiteratu eban. Eunetik amaiak berba egiten dabe; eunetik bostek jolasetan diardue; 100'ko iruk burrukan. Baiña interesgarri izango yaku izaki egazlariek agertzen diran amesetan, ames orreik ez dirala sarritsuak egiztatzea. Baita azterketa orretan iru amesetik bat baiño gitxiago margodunak zira be jakin zan. Eta ames teknikolore oneik, adifez, gitxiagoten ei-dira, ta andrazkoak gizonetzkoak baiño sarriago ei-dabez.

# «Jehova'ren» aitortzailleak

Deitzen yakon alkarte berarizko ameriketarra da. Eztagoz protestante elcizetan barruraturik. Diru asko ta antolabide tankera on-ona daukie. Iparramerikatar jabetasunari esker, eta Hitler'ek lapurturiko lurralde areik askatu ebezalako, entzute ori ona zala-ta, jarraile barrieci indarra emon eutseen. Olan sartu ziran Europa'ko laterri batzuetan.

Politika, saleroste, ta erlijioen aurka doaz, euren ustez orreik Satanase'ndar ta bitartekotasuna daukuclako. Idazteun-Biblia'ren bidez erlijio gauzetan naste-borraste mingarria ercinten dabe.

## EURON IZENA

Isasias'en esanean (43,10) dago euren izenaren zergaitikoa: «Nire aitortzailleak zuek izango zarie». Baiña oartu bear da Jaungoikoa'ri deitutean «Jehova» Idazteuncan izen ez ezauna darabilela. Izan be, Israel'go irakasleak, errabiñek, jainkotar izena mintzatean, itzal bagekeri guztia aldentuteko, ospatsu lau-lerro (tetragrama) au YHWH idatzi ta aozkatu mintzaten eben.

Ori dala ta Jehová, Jah-vé'ren aozkatze oker bat da, bearbada 1.100 urtean Kristo geroztik erriratu. Bestalde, «Jehova'ren aitortzailleen» izena ez da antxiñakoa oraintzukoa baiño. Lenengotan talde ori «Atalaya» deituten zan, geroago «Idazteuna'ren ikasleak». 1931'ko Garagarrilla arte Russel'en ikasle jarraitzailleak ez ziran ausartu esaten Jainkoak izkutuki mixteriozki eragin eta beariturik «Jehova'ren aitortzailleen» izena artu ebela.

## EUREN JARDUNBIDEA

Etxeetako ateetatik oi-dabiltz adikor, biotz-alai ta bigunez eskeintzen liburu, idaztiño, aldizkariak. Ona onein idazpuru batzuk: «Mundua amaitzen da», «Gerturik zagoz Kristo'ren urrengo etorkunderako?», «Zertzuk dira betiko bizitza ta Jainkoa'ren Erreiniua?», «Santifikadu bedi zure izena», eta abar. Aldizkariak «Atalaya» ta «Itxartu zaitze» biak amabosterokoak. Iñoiz Idazteuna emoten dabe. Zuur eta arduratsuak lenengo ikustaldean, urrengoetan etxekoci, onartu dagian, Biblia'ren asteroko irakastea etxean bertan emotea eskatzen dabe. Olan, astiro-astiro jarraitzaille barrieci irakasten yakez urrengo au lango egi barriak: Kristo izaki oso-osoa da, baiña ez Jaungoikoa; erlejiño guztiak Satanase'ndar egintzak dira, etabar.

## EUREN KONDAIREA

1852'gnean Pensilvania'ko Pittsburg'en jayo zan Karlos T. Russell'ek irasi eban alkarte au. Ogei urtedun zala, Idazteun'en ikasteak

egiteko, suspertzaille izan zan batzoki baten. Ango irakasleetan zertzelada zeztekin iñoen, ludiaren azkena 1874'n elduko zala. Baiña eldu zan eguna ta ezebez. Alan da be, «Biblia'ren ikasleok» aurrera euren igarkari auresanokaz.

Sei urte geroago, «Watch Tower Bible and Tact Society» argitaldu eban Russell'ek eta beste askotariko idaztiak zabaltzen iñarduezan. Bere ikaskizunen zalbalkunde obca egiteko Palestina, Ejipto, Errusia, Korea, Japon, Txina, India ta Germani'n zear ibilli zan ibilli. Laterri oncik oroetan, 1914'rako jakinarazoten eban ludiaren azkena. Aldi au eldu ta bere auresana ez izanez, aztertu ebazan zenbaketak eta barriro zabaldu 1918'rako izango zala. Baiña esaten ebanik jazo бага il zan. Bere ixilleko bizitzari dagokionez 1897'gn urtean ezkontz-austea lortu ta emazteagandik aldentu zala jakin bear dogu, ta gero «mirarizko garia» baserritar siñiskor batzueri saldutearren beste epaitegi baten be aurkeztu bear izan eban.

## EUREN IKASKIZUNA

Jakin dagigun laburki euren irakaskintza. *Jaungoikoa*. Bakar bat da, gogozkoa ta alguztiduna. Bere izena «Jehova».—*Jesukristo*. Ez da Jainkoa. Jaungoikoa'ren antzera izan zan izaki berezikoa, ta Jaungoikoa izan barik, guztiz altsua izan zana.—*Irutasuna*. Ikaskizun au deabruak bakarrik asmatu leikean.—*Arima*. Ez dala gogozkoa ezta illezkorra be. Adimenez bakarrik desbardintzen gara abereakin.—*Kreaziñoa*. Gizona ta Satanase obengaitik kondenu ebazan Jaunak.—*Erlejiñoa*. Eragozpen bat salbazifiorako... zifiauste, itxuskeri, sasiyainko-zalea. Bere sortzaillea deabrua.—*Eleiza katolikua*. Mundutar antolabide alduna; aberastan izugarri jabetua ta etxe ederretan ostatuta.—*Inperua*. Eztago inperurik. Geienez, diño gaur, bitarteko atsedan toki bat. Obenaren zigorra eriotzea da.—*Zenbatzuk salbatzen dira?* Berbizkunde bi izango dira. Lenengorako 144.000 aukeratuak bakarrik dagoz. Eta bigarren berbizkunde, lur onetan sariketa artuko daben beste giza-talde on dirantzat izango da.

\* \* \*

Ikusten dogunez aitortzailleen ikaskizuna oroz ezezkoa da. Eureka urreratzen dan edonor, Ebanjelioaren arnasea aurkitu gurariz, gogo-arnaz eta Barri Onaren ordez; arimabako ikaskizun, gai zalekeri eta Kristo bagarik, Ebanjelio okertuakin aurkituko da.

LETONA

# IRONSIDE

Nor da izen onegaz bear egiten ebana urrutikuskiñean? Antzezlari ospetsu onen bataio-izena, Raymond Burr da. Askorentzat ameriketar telebiziñoko zoriontsu ta aduoneneko lez agertzen da. Orain bere lagun onenak ezagutuko ez leukeen ainiako gizona dirudi.

Raymond Burr izan beti izan zan buru ardurazko gizona, bere irabazpide egin-kizunaren lanari osorik lotua, berberak negozioa, gizon buruzkoen antzera, zuzenduten ebana.

Orretarako irabazpide-lagun bat aurkitu eban, «izar» ertilari gailen izan zan Gail-Patric izeneko andra aundiki omen-dunaren berarizko antzezlaria.

R. Burr millizka-sibarita orreitakoa zan, ez bakarrik ondo jan ta nai ebana edan baita apainkeri ta nabarmen aundikeriz bizi be. Ederti-bildumari ona zan, eta bere erti-laukiak ta txina-pitxarrak entzutetsuak ziran.

## ALDAKUNTZA

Raymond Burr, orain, bere lanetarako oitura-ekanduekaz arduratu ta artogatzen da ainbat, eta giori-idatziak ikasten ditu barne-aginduz ezetan kaltegarri ez dirala jakiteko. Baiña, jakiña, gatzba-koak urtetea be ez dau gura. Gioilaburte bakotxak erriko barne-biotzarentzat dei bat, eta itxaropenantzat leio izan dai-teala nai dau.

Bere ixilleko bizitzan, antolabide taldeakaz lagun, Raymond'ek bidegaldue-tan dagozanak aurrera ateratzeko, siñismena galdu dabenei uste-ona emoteko eta gaurko gazteak bide artezetara zuzenduteko lanean diardu.

Baita, atsedan-aldietan, bardin film-argazkiketan ta onen gertaeren tartean, lagunekin, barruko gaietzaz diardu, euren arazoak argitzeko arduratuñ ta eurai lagundu guraz, erabagiten.

Gau guztietan otoi egiten dauala baita bakartasunean, dagonean aspaldi dakie danok.



Len, bere asarreak bildurgarri izan ziran, eta uts edo okerren bat egiten ebanari agiraka gogorrak egiten eutsa-zan. Orain bare-patxadaz utsak eta ondorenak, adierazoten dauz ez daitezaz barriz egin.

Hollywood'en, ustebako aldakuntza ori ez dabe ulertzen, eta antzezlariak, bestelakotu, oi-dauan krisisa, estu-aldia, izan dauala uste dabe.

Dakigunez «Jon deitua dan gizon bat» izenezko XXIII Jon'en bizi-kondairaren film bat ameriketar telebiziñorako egiten iñarduan. Aren bizitzako irudiak, Raymond orri biotza dardaratu eutsoen, eta ardura aundia artu eban eginkizun orretan. Urdurizko ardura ori, sendagilleen ustez, ez zan izan biotz miñ estu-aldia egin eutsona. Raymond Burr arrisku orretzaz illunki konturatu zan, ala-olaz, eta auxe bakarrik bururatu yakon: film ori azkendu bagarik ilgo ete zan. Orduan, otoitz eginda, loak artu eban.

Biaramonen, osagilleak ulertu ezin eben obekuntzea asi yakon. Baiña berak Raymond antzezlariak osakuntzearen zergaitia ba-ekiala zeatz uste dau. Bere eritxiz XXIII Jon'en bitartekotasunez bakarrik osasun osoa etorri yakon. Berak egindako XXIII Jon'en filmak eta osakuntzaren jazokun orrek, gauzak bein betiko oraingo eran ulertu eragin dautsoez. Eurok eragin dabe agertzen dan aldakuntza ori.

Lekaidetxe batera joango dala be bai-diño. Baiña berak ezetz erantzuten dau. Zine ta telebiziñoaren bidez elburu bear-bearrezko aundiagoari otseindu bear dabela uste dau, eta alegin guztiak orretara daroaz.

LETONA